


78

3 euro • 2003ko MAIATZA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: JAVIER MURILLO •
EBALUAZIO EREDU BAT ANIZTASU-
NARI EKITEKO • KONTU KONTARI
PIRINIOETAN • UGAZTUN HIZTUNAK
GARA • GAITASUN DISKURTSIBOA



GAIA

Zientzia, teknologia
eta lanbideak


Euskal Herriko testu liburuetan



Zu eta
ni...



...bi



elkar



Ezberdinak
gara...

...ZU eta ni



gaia

LANBIDEAK EUSKAL HERRIKO TESTU LIBURUETAN

Kamele Perez Urraza EHuko Gasteizko Irakasle Eskolako irakasleak egin berri duen tesiaren nondik norako nagusiak azaltzen dizkigu.



elkarrizketa

JAVIER MURILLO

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle eta ikertzaileak Kalitate Legea aitzaki hartuta, kontzeptu hori nola ulertzen duen azaltzen du.

5 editoriala
6 kronika
8 gaia

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA LANBIDEAK Euskal Herriko testu liburuetan

18 **elkarrizketa**
JAVIER MURILLO

24 **esperientzia**
Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko

Sukarrieta Taldea

28 **esperientzia**
Kontu kontari Pirinioetan egitasmoaren berri Josemari Carrereren eskutik

30 **ekarpena**
Ugaztun hiztunak gara
San Telmo Etxola hezkuntza proiektua

33 **berriak**

38 **kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan**

Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan giltzarri

Itziar Idiazabal eta Luis Mari Larringan


Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com/ Lege Gardailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzio batzordea: Mikel Estomba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urraza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sulupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Arantzako artisau bat makila eskuz egiten (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2003/ IV/9. Kopurua: 3.500 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliatzen dira. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

aurrera

Orain inoiz baino gehiago!

Egin zaitez harpidedun

deitu
deitu

943 30 35 55 / 943 30 35 54
635733389 / 635733388

telefonoetara
telefonoetara

edo bidali zure datuak eta telefonoa helbide hauetara:

Martin Ugalde Kultur Parkea • Eraikin zuria • 20140 ANDOAIN


www.egunero.info/harpidetza

Euskarak behar zaitu

Egunero

editoriala maiatza

Korrika bi urtetik behin datorkigu,
Oteitza, berriz, betirako joan al zaigu?



Estetikaren hezi-
ketak garrantzia
hartzen badu,
Oteitza errefe-
rente garrantzi-
tsua izango da,
seguraski.

Euskararen lekukoak Euskal Herria zeharkatu du. Lekukoa eskutik eskura pasatzen joan da elkartasunaren berotasuna eta euskarak sortzen dituen hainbat ilusio, amets eta proiektu transmitituz.

Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte. Une hunkigarri ugari bizi izan da. Eta gogoan izan ditu euskararen alde lanean aritzeagatik guregandik urrun dauden guztiak.

Izan ere, Egunkariako auziarekin zerikusia duten hiru kidek atxilotuta jarraitzen dute. Hirurak Euskal Herriko egituraketan zutabe diren hiru erakundetako ordezkariak dira: Egunkariako Iñaki Uria, Udalbiltzako Xabier Alegria eta Ikastolen Elkarteko Xabier Oleaga.

Egunkaria indarkeriarekin lotu nahi izan dutenek gerra basatia bultzatu dute Iraken. Horrela izanik, nork uste du indarkeria beraiantzat arazoa denik? Nork uste du indarkeriak kezka etikoa sortzen dienik?

Hezkuntzan gabilitzanok garrantzia ematen diogu koherentziari, esaten denaren eta egiten denaren arteko koherentziari. Eta askotan, koherentzia horren faltan aurkitzen gara.

Gure ikasgeletan, guztiok errespetatuak izateko eskubidea dugula lantzen dugu. Iritzi guztiak baliagarriak eta errespetagarriak direla esaten dugu. Ikasgeletatik at, aldiz, komunikabideak ixten dira: Egin egunkaria, Egin irratia, Ardi Beltza, Egunkaria...

Gure gizartean inor ez dagoela soberan lantzen dugu. Integrazioa garrantzitsua dela diogu. Eta botereak hainbat alderdi politiko eta erakunde legez kanpo uzten ditu.

Elkartasuna, aniztasuna eta giza eskubideen errespetua bezalako balioak lantzen ditugu gure ikastetxeetan; elkarriketa eta adostasuna gatazkak konpontzeko egokiak direla lantzen den bitartean, botereak, bakearen izenean gerra prestatzen du.

Korrikak Iruñera jende ugari inguratuko zuela eta, Alde Zaharrera sartzea debekatu nahi izan zuen alkateak. Jende kopurua bada arazoa, "San Ferminak" debekatu beharko lituzke, ezta?

Eskola barrukoaren eta kanpokoaren arteko kontraesanak ikusirik, hezitzaileon lanak ez duela ezertarako balio pentsa genezake. Eraikitzen joateko, ez al da ona ikasleek dauden kontraesanak ezagutzea, eztabaidatzea eta euren ondorioak ateratzea?

Oteitzak ere, kontraesanak izan zituen bere ingurukoekin, eta batez ere, boterekoekin. Dena den, une bakoitzean pentsatzen zuena agertzen jakin izan zuen.

Oteitza joan da bere obra guri utziz. Eta bere obraren atalik garrantzitsuena, seguraski, bere pentsamendua izan da.

Urteak joan ahala, baliteke estetikak garrantzia hartzea heziketan. Eta orduan, Oteitzaren pentsamendua klabe izatea. Hala bedi!

kronika

1967-68 urte bitartean EAEko ikasle lanetan aritutako enpresen artean 1,8 milioi euro banatuko dituztela jakitera eraman du Eusko Jaurlaritzak. Irakasle horietako batek, Kontxita Beitiak, aipatu du ez dela bide erraza izan hori lortzearena. Orain dela 10 urte hasi omen zen beste andereño batzuekin batera eskakizun lanetan, eta erantzunak luze jo du. Diru laguntza hori urte horietan lanean aritu zirela egiaztatzen dutenen artean banatuko da bitartean. Hezkuntza Sailak oraindik berririk eman ez badu ere, irakasle askoren deia jasotzea espero da, 100dik gora, hain zuzen ere. Izan ere, 1965-66 ikasturtetik aurrera ikastolak asko ugari ziren eta hazkunde honekin batera irakasle lanetan aritutakoak ere ugari izan ziren. Ordain berezia izango dute bai hainbeste lan egin ondoren, nahiz eta 40 urtez itxaron behar izan duten eta pazientzia handiko ibilbidea egin behar izan duten horretarako.



Euskal eskola nazionalaren eguna Azpeitian

Martxoaren 30ean, igandea, Euskal Eskola Nazionalaren II. eguna ospatu zen giro ezin hobean eta ezohikoan, nolabait esateko, Egunkariaren itxierarekiko desadostasuna hasiera-hasieratik garbi aldarrikatu baitzen.

Antolatzaileek hezkuntza sistema nazional propioaren eraikuntzarako ikastolek duten garrantzia eta ikastetxe horien herri izaera azpimarratu zituzten. *“Kontuan hartu gaur egun Euskal Herrian ez dagoela lurralde guztia hartzen duen administrazio propioa”*.

Ikastolako gurasoen paper aktiboa aipatu gabe ez zen geratu, eta gertutasun horrekin loturik, eguna baino lehen ere antolatu ziren zenbait ekitaldi: martxoaren 20an Nafarroaren historiari buruzko hitzaldia egin zen eta Pantxo eta Peioren kontzertuak Izarraitz frontoira gerturatutako enpresen barrenak goxatu zituen.

Festari dagokionez, herriko plazan

hainbat ikastetxetako ordezkariak harriera egin zituzten: Hazparne, Tuter, Altsasu, La Puebla de Labarka, Leioa eta Urola bailarako ikastetxeetakoak, hain zuzen ere.

Ondoren, ezohiko protagonista Egunkariaren erasoaren salaketa izan zen. Elias Mendinueta Ikasberri Ikastolako kide eta festaren antolatzaileak zionez, *“egun berezia dugu hau, euskaraz eta Euskal Herriak eraso larriak jaso berri dituelako, eta festa honetan behar luketen batzuk espetxeratuak daudelako... Ikasberri Ikastola, Egunkariaren filosofiarekin bat dator”*.

Haurren parte-hartzea, berriz, plazarainoko danborradarekin etorri zen, bakoitzak txapelean itsasteko bana zuelarik eta zuzendariak egunkari barenekin gidatzen zituztelarik haien erritmoak. Ekitaldi berezia Xabier Oleagaren alaba Iratik eginiko hitzaldia izan zen, jasotako elkartasunarengatik eskerrak eman zituztelarik.

Horrela, atxilotuen familiakoei eta Azpeitiko Egunkariako langileei ere omenaldia egin zieten. Xabier Alegria, Inma Gomila, Joseba Jaka eta Xabier Oleagarentzat txalo zaparrada ozena entzun ahal izan zen. Oro har, egun osoa helburu nagusi batekin ospatu zen, Mirari Bereziartua Ikasberriko lehendakariak azpimarratu zuenez: *“etorkizuna euskaraz bizi nahi dugu”*.

Hizkuntzalaritzak ez dio hizkuntzari ezertarako balio, hiztunak behar duen hizkuntzari lotzen zaion kultura da hizkuntzari benetan mesede egiten diona

Jorge OTEITZA



Euskal Herriko Historiatik Nafarroa bereiztea eskatu du UPNk

Euskal Herriko Historiari buruz hitz egiten duten liburu eta webguneetatik Nafarroaren erreferentzia guztiak kentzeko eskatu du Nafarroako Gobernuak. EAEko historia eta Nafarroaren iragana ezberdinak direla eta "aberrazio historiko" baten aurrean gaudela salatu du. Euskal abertzaletasunari Nafarroaren gainetik eta honen interes eta historiaren aurka joatea leporatu dio.

Jose Antonio Urbiola, Nafarroako EAJko lehendakariak ez du itxaron salaketari erantzuna emateko: *"gehiago irakurri eta gutxiago manipulatzeko"* eskatu die esaten ari dinerak zentzurik ez duela azpimarratuz. Nafarroaren errealitate historikoa euskalduna izan dela beti azaldu du, eta beste probintziekin izan dituen berezitasunak ondo argituak agertzen direla Euskal Herriko Historiako testu liburuetan.

Hori gutxi ez balitz, jakina da I eta J hizkuntza eredu berriak iragarri dituz-

tela datorren ikasturterako. Iragarpen horren aurrean, hainbat erreakzio entzun dira zenbait erakundetatik eredu berri horiek beraientzat zer suposatuko luketen adieraziz.

Besteak beste, Nafarroako Ikastolen Elkarteko idazkari nagusi Pello Mariñelarenaren aburuz, hiru helburu lortu nahi dituzte eredu berri horien ezarpenarekin. Batetik, Dereduaren zabal-kuntza galaraztea, horren funtzionamenduaren arrakasta jakina baita aniztasunaren trataeraren aldetik. Gainera, administrazioak dekretua toki estrategikoetan jarriko omen du, euskarari matrikula kentzeko aukera emango dietetan, hain zuzen ere. Bigarrenik, A eta B ereduaren porrota ezkatuztea eta B ereduaren definitze zehatzagoa ematea. Eta azkenik, herritarren artean nahasmena sortzea, hainbeste eredu edukita, matrikulatzeko garaian gurasoen artean duda gehiago sortzea izango baita normalena.

Sortzen-Ikasbatuazeko Rikardo Ederrak aipatzen duenez, hauteskundeak gertu egoteak izan du aldaketa hauetara eragina, eta Euskararen Legea aldatzeko saiakerarekin ere lotzen du dekretuaren izaera hau.

Orain, Eskola Kontseiluaren oniritziaren zain dago gobernua dekretua aurrera eraman ahal izateko. Apirila bukaerarako edo maiatzaren hasierarako argituko omen dute.

Apirila mobilizazio ugariz jantzi-riko hilabetea izan dugu. Ikasle Abertzaleak erakundeak deituta "borroka astea" antolatu zen apirilaren 8tik 10era. Asteko egun bakoitzari izaera propioa eman nahi izan zioten: lehen egunean "lege arrotzei intsumisioa", bigarren egunean "hizkuntza eta kultura eskubideen aldeko jardunaldia" (euskaraz bizi eta ikasteko eskubidearen aldarrikapena) eta azkenekoan, berriz, mobilizazio eguna. Lanuzteak eta manifestazioak egin ziren azken egunean, eskubideak urratzen dituzten hainbat elkarteren aurretik pasaz.

Mobilizazio hauekin bat, apirilaren 7an EHUKo Leioako campusean LOUren aurkako eta NUPeko euskararen aurkako lege arrotzen kontrako "itxialdi nazionala" egin zuten, *"geure eskubideak ez daude salgai"* lelopean. Gauean Erztzaintzaren bisita izan zuten parte hartu zuten 105 lagunek eta zenbait atxilotu izan ziren. Monteroren erantzuna, nahiz eta klaustroko prozedura atzeratu den, uda baino lehen EHUKo barne araudia onartuko dela izan da.

Apirilaren 8an, aldi berean, 0-3 etapako eskola publikoen eta hezitzaileen aldeko manifestaldia izan zen Hezkuntza Lurralde Delegaritzen aurrean etapa horren garrantzi hezitzailea azpimarratuz.

157 atxikimendu jaso zituzten ekimenaren bultzatzaileek eta besteak beste, han izan ziren ikastetxe guztietako ordezkariak, EHIGE, CCOO, ELA, LAB, EILAS, UGT, Haur Eskolen Koordinakundea, Sarean, BIHE eta Sortzen-Ikasbatuaz. Gaiari loturik, aipatzekoa da Gasteizko Gobernuak 3,7 milioiko laguntza eskaini diela EAEko udalei etapa hori eskaini ahal izateko.

G A I A

Zientzia, teknologia eta lanbideak
Euskal Herriko testu liburuetan





Karmele PEREZ URRAZA

EHko Gasteizko Irakasle Eskolako irakaslea

Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testu liburuetan izenburua duen tesian 5. mai-lako Ingurunearen Ezaguera arloko testu liburuen euskal edukia aztertzen da. Hezkuntza sistema estatala eta bere baitan gauzatzen den ezagutza hegemonikoa –zientzia, teknika eta ekonomiaren ispilutzat hartzen dena– abiapuntutzat harturik, lanbideek duten euskal trataeraren bidez testu liburua betetzen duen funtzio ideologikoa ikertzen da. XX. mendean zehar euskaraz ekoiztutako testu liburuen ikonografiaren zein testuaren eduki azterketaren ikerketa teknika erabiliz burutu da hutsuketa lana, azterketa sinkroniko-diakroniko horretarako gaztelaniaz eta frantsesez ekoiztutako ale batzuk hartu arren.

G

Lanbideak Euskal Herriko testu liburuetan

Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu berri dugun tesiaren laburpen gisa mamitzen dugu artikulu hau, testu liburuetako lanbideen agerpenaren bidez gure herriaren lanari, zientziari eta teknologiarri ematen zaion trataera islatu nahi dugularik. Horretarako, lehenik eta behin, gure ikerketaren nondik norakoa ulertzeko oinarritzapen teorikotik eta metodologikotik abiatuko gara. Honako hiru zutabe izan ditugu kontuan:

Batetik, curriculumaren iturburu soziologikoa. *Curriculumak* gizartea, hezkuntza eta eskola besarkatzen dituela ulertzen dugu. *Ikasmateriala, irakaslearen zeregina, hezkuntza ikerkuntza...* hautatzen den teoriaren edo paradigman arabera ulertzen dira, eta horregatik, hautaketa horrek eramango gaitu *hezkuntza, irakaskuntza prozesua* edo *hezkuntza gatazka* modu batera edo bestera ulertzera.

Elementu horiek guztiak biltzen dituen hezkuntza sistema bigarren zutabetzat hartu dugu. Bere sorreran sakonduz, Estatuaren eta Ezagutza Legitimaren arteko erlazioa aztertu dugu eta, Euskal Herriko egoerara ekariz, *Ingurunea* deritzon arloak izaera gatazkatsua duela ageri zaigu gure ikerketa guztian zehar. Arazoa zera da: nola bete, zein edukiz bete, ikasleari eskaini behar zaion testuinguru sozial eta kulturala, testu liburuetan islatzen dena, alegia.

Hirugarren zutabetzat testu liburua hartu dugu. Testu liburua da irakaste-ikaste prozesuetan gehien erabiltzen den baliabidea. Irakasleen eta ikasleen esku jartzen du maila edo kurtsoan zehar landu behar den guztia. Erabilterraza delako da erabiliena eskola gehiengotan; hainbestekoa, non “testu liburua diren eskolako curriculum benetakoak” (Apple).

Ikerketa Euskal Herriko eskoletan

kokatzen denez, hiru zutabe horiekin batera, hemengo hezkuntza errealitatea landu dugu gure tesian. Programa ofizialei eusteko asmoz, indarrean jarritako testu liburuen araubideak aztertu ditugu, Iparraldekoa eta Hegoaldekoa, horiek erabat mugatzen baitute Euskal Herriko irakaskuntza. Euskal ekoizpena etorri, testugintzaren bilakaera aztertu dugu, bi lege marko horien barruan loraturiko euskal hezkuntza egitasmoek erabat baldintzatu dituztelako bai testu liburuen nolakotasuna bai bertako euskal irakasleen zeregina.

Aipatutako ikerketaren ildo nagusi horietara heltzea, oraingoan ezinezkoa da. Hala ere, beharrezkoa ikusten dugu marko teorikoaren oinarritzko zerteladak eskaintzea geroago agertuko diren emaitzak eta ondorioak bere sorlekuan egoki uztartu ahal izateko. Ikus dezagun!

Curriculumak ulertzeko moduak

Curriculumak ulertzeko moduak garatuz joan dira Hezkuntza Zientzien bi-



lakaerarekin batera. Horietatik, paradigma kritikoan kokatu dugu gure tesiaren arrazoiak. Hau, tekniko eta praktikoa ez bezala, ikasgelako hezkuntza praktikatik baino urrunago doa: eskola ez dago gizartetik at, gizarteko dimentsio sozial eta politikoen eraginpean baitago. Hezkuntza ezagutzan, beraz, interakzio kultural, historiko, politikoa eta ekonomikoek eragiten dutela “zientzia” pentsamendu askoren ondorioa da, gizagileek eraikitzen dutena eta, horregatik, gizagileen esparru komunikatibo horretan, *testuinguru*, *tradizioa*, *kultur diferentziak* eta *personalak* aintzakotzat hartzen dira. Ikuspegi honen arabera, beraz, curriculumak testuinguruarekin lotuta dagoenez, honako hiru premisa azpimarratu nahi ditugu:

1- Curriculumak ezin da banandu errealitate sozialetik.

2- Curriculumak ezin da izan neutroa, sortzen den gizartearen arabera eta interes eta balioen menpekoko baita.

3- Estatuak berebiziko garrantzia du eskola curriculumean.

Hemendik ondorioztatzen dugu teoriari kritikoek defendatzen dutena: curriculumak erabaki politikoen arabera dela eta, Estatuak eraikitzen dituela hezkuntza sistema eta curriculumak *bere intereseko* diren edukiak ezartzeko. Teorialari kritikoek bi azpikorronek, erreproduzioarenak eta erresistentziarenak, hezkuntza sistema

Estatuaren aparatu ideologikoa dela onartzen dute. Denak bat datoz, hezkuntza sistemak klase zatiketaren erreproduzioa gauzatzen duela esaterakoan. Baina erresistentziaren teoriaren aldekoak urrunago joango dira. Klase zatiketaren erreproduzioari bai, baina, horri baino garrantzi gehiago ematen diote etnia, hizkuntza, genero, arraza edo kultura anitzen arteko kontrasteak sortzen duten desorekari. Diotenez, gizartean sortzen diren gatazka horiek eskolan ere sortzen dira, eskola gatazka bihurtuz. Eraso horien aurka, hala ere, eskola erresistentziak sortzen dira. Teorialari hauentzat, beraz, hezkuntza ez da erreproduzitzen den gertaera soila, determinatua eta aldaezina dena, gizartean aldaketak sorraraz dituzken tresna ere bada.

Gatazka horien sorburua, bestalde, hezkuntza sistemak bermatzen dituen hiru funtzioetan (*akumulazioan*, *legitimazioan* eta *produkzioan*) aurkitzen dute (Apple). Horregatik, hezkuntza sistemaren helburua da, hain zuzen ere, talde boteretsuen (edo hegemonikoek) funtzio ekonomiko eta funtzio ideologikoa, naturala eta legitimoa bezala agertzea. Funtzio ekonomikoari dagokionez, klaseen arabera sailkapena eta prestakuntza profesionala bermatu nahi da; funtzio ideologikoari begira, berriz, ordena ekonomiko horren legitimazio soziala, eta Estatuak behar dituen kohesioari eta identitateari eustea. Naturala eta legitimoa esate-

an, eskolak erreproduzitzen duen ezagutza motaz ari gara, hots, ezagutza legitimoaz.

Ezagutzaren multzoan zati bat soilik da legitimoa, baliagarritzat edo ofizialtzat hartua dena. Bestalde, ezagutza zati hori legitimo bakartzat hautatzen duen taldeak alboraturik edo kanpoan uzten ditu multzoaren gainontzekoak, ezagutzak ere badirenak. Eta horrela, aukeratzen den ezagutza talde baten eta ideologiaren arabera da; aukera kulturala baino ez da. Arbitrariora da, hautatua, gainbaloratua, baina eskolaren bidez legitimatua, eta, horregatik, eskolako edukietatik kanpo geratuko dena, diskriminatua izango da: azpibalaratua.

Legitimazio prozesu horren naturaltasunean Kapitalak (talde hegemonikoak) eta Estatuak badute zer esanik. Bien interesak sinbiosi edo trukaketa berean elikatzen dira. Kapitalak botere ekonomiko du, baita botere ideologikoa eta goi mailako klasearen autoritate moralak ere. Zer du Estatuak? Botere antolatua, hezkuntza azpiegitura arautua eta aurrekontuen dirua ditu. Interes trukaketa horren ondorioz, lehenak gizarte zibilaren homogeneizazioa lortzen du eta, besteak, hezkuntzaren monopolioa. Horregatik, talde bien interes uztarketa hezkuntza sistemaren bidez gauzatzen da, helburuz eta edukiz curriculum ofizialean agertuz, eta ikasleei zein irakasleei helarazten zaien testu liburua bitarteko delarik.

Estatuaren curriculumak Euskal Herrian

Teorizazio hori Euskal Herria ekarrita hezkuntzaren historiak erakusten digu 1806an Unibertsitate Napoleonikoa Iparraldean ezarri eta, haren ereduari jarraituz, 1857an Moyanoren Legea Hegoaldean ezarri zitzazigula. Lehen, Napoleonen kutsu inperialistarekin ezarria zen, hezkuntza sistema bakarra, lurralde osorako, frantsesez eta egitura hertsiki zentralistarekin. Haren parean, Hegoaldean, egitura hertsiki zentralistarekin, gaztelaniaz, lurralde osorako, hezkuntza sistema bakarra, burgesien-





tzako xedeak arautuz eta gutxiengo gobernarren ideologiak ezarritako legea Moyanoren legea dugu. Hor ikusten dugu, lehenengoz, Kapitalaren interesak eta Estatuaren elkartzeko joera, hezkuntza sistemaren bitartez, alegia: "Hezkuntza homogenea" behar zuten sistema arautuaren bidez: *batasun nazionala bermatzeko* (hizkuntzaz eta kulturaz) eta orduantxe sortutako Estatuak ezarritako *identitate berria eraikitzeko* (industrializazio aroko beharri- zana sozial eta ekonomikoei begira zegoena). Osteko hezkuntza legeak ez dira aldatu. Iparraldean hezkuntza gaztaka laikotasunaren inguruan bildu da, eta Hegoaldean, publiko eta pribatuaren arteko dikotomian. Euskal Herriak ez du izan ez hitzik ez presentziarik araubide horietan. Hezkuntza homogenea horren bidean, hala ere, protagonista isildua izan da, baina, ez isila.

Lehen adierazi dugun bezala, hezkuntza sistemaren bitartez erreproduzioa ez da hain determinatua. Erreproduzitu egiten da, baina baita produzitu ere, bertatik barretetik. Erresistentzia gisa erantzuten da, gehienetan, zeren Kapitala eta Estatuaren arteko oreka apurtzen da gizarte zibilaren interesek erantzunik ez badute. Horren lekukoa da, euskaltzaleek, bat egirik, Estatu albo batera utzita ernatu behar izan dituzte euren egitasmoak. Batetik, gizarte zibilean eta, bestetik, euskal intelligentzia kultural, politikoa zein ekonomikoarekin bat egirik. Horren emaitza dira, adibidez, eskola elebidun gisa 1925ean Bizkaian sortutako Auzo Eskola, oso fokalizatua baina sustrai sendokoa edo, ostean, 1925-36 bitartean, loratu zen Etxe eskola, hedadura handikoa

baina ia hil zorian geratu zena gerraren garaian eta, 1960tik aurrerako Ikastola, berreskurapen nazionalari begira egitasmorik iraunkorra eta herrikoiena. Hala ere, egitasmo horiek, zoritxarrez, oraindik ez dute hezurtu hezkuntza sistema propioa Euskal Herri osorako.

Gauregun ere, 1. grafikoan adierazten dugunez, Estatu bien curriculumak ez da orientatzailea, arautzailea baizik, arautzailea edukiaren gainean eta testu liburuen onespeneren gainean. Iparraldean eta Hegoaldean, Estatu bien joera hori ez da aldatu, tesian luze adierazi dugun moduan. Nahiz eta, Hegoaldean, Erkidegoak euskararen inguruko eduki gehiago, eta, hezkuntza tratatara berezitua bideratu, eta, honek testugintzan eragin zuzena izan, curriculumak, LOGSEaren menpean eraiki behar dute Nafarroak eta EAEk.

Curriculumeko edukia diziplinatan banaturik agertu izan ohi da, historikoki bi joera nagusitu direlarik. Batetik, hegemonikoak, ezagutza zientifikoa jainkotzat hartzen du. Ezagutza unibertsal eta zientifikoaren izenean, ez du


aintzat hartuko, ez landuko, gizabana-koak (komunitateak) berezkoak dituen kultur eredu eta hizkuntza. Aurrerako joerak, berriz, ingurune hurbiletik ezagutzak hartuz, espazio hurbila babestu edo gorde nahi du –pentsamenduak, sentimenduak, hizkuntza, identitatea...-. Tradizio biak Ingurune Arloan aurkitzen ditugu, baina hegemonikoa da nagusia bai kantitatez bai kalitatez, Estatuak beretzat gordetzen baitu bere izaeraren zatirik handiena, kantitatez eta kalitatez, beste arloekin konparatuz gero.

(ikus 1. grafikoa)

Testu liburuen edukiaren azterketa

Edukiak garrantzia handia hartzen du testu liburuan, kulturaren ardatza delako eta izaera soziala zein politikoa duelako. Guk ingurune hurbilean, Euskal Herrian, *lana, ekonomia eta zientzia*, eta *teknikaren* garapena nola islatzen den argitu nahi dugu, zeren In-txaustik dioen moduan: "*lanaren bideak irekiz mamitu da Euskal Herria, he-*

1. grafikoa: Eskolako edukia testu liburuan gauzatzeko prozedura



Goi mailako ogibideak eta Estatuaren burokraziari loturikoak sarriago agertzen zaizkigu, herri xehearen bizibideak eta eginahalak baino. Unibertsaltasunaren ize-nean partikularitasuna eta herritar kultura alboraturik geratzen dira, eta beraien bidez lantzen den edukia erabat testuingururik gabe agertzen zaigu.

rri-herriaren zuztarretik. Hein handi batean, lanbideok eman diote europar jitea gure herriari, lanerako asmatu, hartu nahiz zabaldu dituen tekniken bidez. Eginahal horretan jantzi da herriaren nortasuna". Eduki mota hau ere, zientzia eta teknologiarekin lotura duena, testu liburuan agertzen da. Baina ez edozein eratan, testu liburua tresna didaktikoaz gain ideologikoa delako. Horregatik, ikuspuntu horretatik begiratuta, testu liburua Estatuaren eta irakaslearen artean kokatzen dugu. Lehenik, curriculum ofizialaren onespennarizor dio bere izaera, ondoren argitaletxei. Testu liburuan dagoen edukia, argitaletxeak egindako irakurketaren arabera da, edukiaren gaineko ikuspuntu desberdinak agertuz. Irakasleak, curriculumaren bertsio bat aukeratu eta erabili baino ez du egingo. Erabilera horren eraginak ikastetxea eta familia ukitzen dituen arren, guri bereziki interesatzen zaigu ikasleengan duen eragina. Testu liburuak eta argitaletxeak eragin zuzen-zuzena izango dute ikaslearen garapenean eta identitatean, kultur eredu uniformeak proposatzen dituztelako.

Testu liburuak eztabaida eta ikerketa bide asko sortu ditu aspaldian esparru akademikoan. Gure arteko lanetan sakonduz era askotakoak direla ikus daiteke. Historiari buruzko edukia, deskribapen orokorrak edo gara-

pena azaltzen duten arren, Euskal Herriari dagokion edukien artean zientzia eta teknologiar buruzkoa zer eta nolakoa den planteatu beharra ikusi dugu, aurretik ez baitago argituta. Curriculum ofiziala argitaletxe guztientzat bera da, baina edukiak modu desberdinean agertzen dira: batzuk Euskal Herriarilotuak eta beste batzuk Estatuari.

Euskarazko ekoizpenaren garapena ikusirik, hiru epe edo aro mugatu ditugu gure azterketarako. Lehenengoa (1876-1974) Iparraldetik abiatzen da. Epe honetakoak dira Bizkaiko Auzo eskolak eta lehenengo ikastolak. Eusko Jaurlaritza sortzen da eta, amaieran, euskararen batasuna gauzatzen da eta Gordailu eta Iker talde pedagogiko berriak sortzen dira. Bigarrenak, 1975tik 1991ra doanak, gorakada handia ekartzen du. Elkar, Erein edo Ibaizabal argitaletxe komertzialak sortzen dira, talde pedagogikoak desagertuz. Hegoaldean, euskararen zein euskarazko irakaskuntza arautzen da eta euskarazko ikasmaterialari sekulako bultzada ematen zaio. Sasoi honetan hasten dira estatuko argitaletxeak euskaraz ere argitaratzen. Hirugarrenean, 1992-2000 bitartekoan, Hegoaldeko lege aldaketak eskolarako liburu asko argitaratzea dakar-gehienak kanpoko argitaletxeen eskutik- eta Iparraldean ere, IkasBiren eskutik, euskaraz argitaratzen dira batzuk, argitaletxe frantsesetatik moldatuta. Egoera honetan indartzen eta gizarteratzen da euskal curriculumaren aldeko aldarrikapena.

Hiru irizpide soziologiko horien arabera, gure laginaren 70 testu liburuak sailkatu ditugu, hiru arotan, alegia. Eurretan guztira 13.310 orri irakurri eta 22.228 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu ditugu edukien hustuketarekin batera. Edukien artean *Ingurunearen Ezaguera*, eta bere pareko *Geografia*, *Historia*, *Zientziak* eta *teknologia* aukeratu ditugu, arlo horretan lantzen direlako ikaslearen ingurune hurbilari dagozkion ezagutzak, eta Euskal Herria bera, eduki moduan lantzen duen arloa delako. Gai hauek 11 urteko ikasleek lantzen dituzte, Hegoaldeko Lehen Hezkuntzako 5. mailan eta Iparral-

deko hirugarren zikloko CM2an. Guk, euskaraz argitaratu dena hartu dugu oinarritzat, nahiz eta Euskal Herriko eskoletako egoerak behartu gaituen gaitelaniaz eta frantsesez ekoiztutako batzuk aztertzeraz.

Edukia aztertzekeo jarraitu dugun prozedura talde (Bilbao & Ezkurdia & Perez) lanaren emaitza da, bakarrean ezinezkoa izango baitzen hainbeste datu biltzea. Arlo formalerako erabilitako kategoriaz gain, beste berrehun kategoriatan erabili ditugu edukien izaera mugatzeko. Gero, gutariko bakoitzak, gaiaren arabera datuak erabili ditu. Gure kasuan, idatzizko mezua eta ikonografikoa, biak aztertuta lanbideak ezaugarritzeko erabiltzen diren aldagaiak agertuko ditugu, eduki hauen maiztasuna alde batetik eta, argitaletxeek ematen dieten izaera, bestetik, argitu arte.

Aipatu berri dugun laginean eta ikonografiari dagokionez, esparru teknoekonomikoa da gehien agertzen dena esparru geografikoaren ostean. Lanbidearen deskribatzaileari, hala ere, garrantzi desberdina ematen zaio testu liburuetan hizkuntzaren arabera eta aroen arabera. Presentzia gehien bigarren aroan ematen zaio beti ere, hiru hizkuntzatan, ordutik hona frantsesez idatzizkoetan agerpena areagotuz.

Lanbidea ingurune fisiko/naturalari, ekonomiko eta historikoari lotua ikusi dugu, batik bat. Ikuspuntu historikotik begiratuta 1. aroko testu liburuetan Aro Modernoan kokatzen dira lanbideen adierazpen erdiak. Bigarren arotik aurrera, berriz, Erdi Aroan. Egungoetan ere, kasu erdiak hor kokatzen dira. Harrigarria da, horregatik, Aro Garaikideari, espresuki egiten zaion erreferentzia gutxi. Erdi Aroan agertzen diren lanbide gehienak, bestalde, ermandadeei eta lanbide elkarteei lotuta daude, Europako hiri edo burguen sorrerarekin batera. Esan dezakegu, iraganean kokatzen direla testu liburuetakoa lanbidearen adierazpen gehienak, lautik hiru, behintzat.

Paisaia da lehen aroko testu liburuetakoa lanbideen kokagunea, joera hori urteak pasa ahala nabarmen jaitsiz. Es-

zenaka agertzen dira lanbideak -jardueraren bidez eta modu estatikoan, gehienetan-, zertan ari diren lanbide horietakoak agertu nahian edo. Ageritze era horrek ordezkatu du prozesuen bidez lanbidea agertzeko modua. Prozesuak gero eta gutxiago erabiltzen dira eduki horiek lantzeko eta, beraien ordeztu, modu atomizatuak edo zatikatuak ugaritzen dira testu liburuko ikasgaietan.

Lehen aroko testu liburuetan auzoan kokatzen da lan mundua, baserrian ere bai eta herrian, %17,64, %5,35 eta %1,78 kasutan, hurrenez hurren. Ingurune hurbilak du, beraz, adierazpen handia lanbideekiko. Bigarrenean, kaleak eta hiriak dute lehentasuna, %0,58 eta %0,98ekin. Hirugarrenean, berriz, kalea da lanbideen gunea, bai Erdi Aroko erreferentzietan -burguari ematen zaion garrantziagatik- bai Aro Garaikidekoetan. Kaleari hiriak jarraitzen dio lanbidearen agerpenari kutsu urbanoagoa emanez. Kaleak %5,02ko agerpena du, hiriak %1,14koa eta baserriak, %1,11koa soilik.

Aipatu ditugun eszenetako pertsonak direla eta, gizonezkoaren nagusitasuna jaitsi da nabarmen -%71,4tik %59,6ra eta, egun, %26,8an kokatua dago-; emakumezkoarena ez da igo horrenbeste -%7,14tik %3,51ra eta, egun, %10,7ra heltzen da-, baina talde mistoaren agerpena, berriz, asko igo da, %21etik %37ra eta, azkenik, %63ra. Horregatik, gizonezkoaren jaitziera hori andrazkoarekiko erlatibo dela uste dugu. Talde mistoaren eszena horietako osagai garrantzitsuak dira haurrak, helduak, eta gutxiago, zaharrak. Eszenetako pertsona horiek sarri agertzen dira euren ospeari lotuak, hots, perso-

naia gisa. Agerpen mota hori, hala ere, gutxituz joan da aroz aro -%14,28tik %57,14ra eta hirugarren aroan %28,57ra pasaz-. Egungo testu liburu etan oraindik ere, lautik hiru kasutan gizonezkoaren adierazpena dugu; beste laurdena, talde mistoari dagokio. Pertsonaiaren erabilera ez da hizkuntzez bereizten, argitaletxez baizik. Adibidez, Erein eta Santillana argitaletxeek asko erabiltzen dute pertsonaiaren errekurtsua, 2. aroan batik bat. Biek, pertsonaia erdiak testuinguru erdal ez-estatalean kokatzen dute, baina gaitzakoak identifikazio esparru desberdinetan. Ereinek Euskal Herrian kokatzen dituen bitartean Santillanak esparru estatalean kokatzen ditu.

Gizarte klaseari begira langileak bigarren aroko testu liburuetan du adierazpen altuena, sasoi honetako industria erreferentziak ere sarriago egiten direlako. Egun, hala ere, langilea gero eta gutxiago agertzen da lanbideari lotua. Langileari dagokionez, bilakaera nabarmena da: lehen aroan langilea Euskal Herrian kokatzen da edo beste- la ingurune estatalean -gaztelaniaz

zein frantsesez idatzitako testu liburuetan-. Urteak pasatu ahala estatalari lotzeko joera ez da galdu, bestea bai, zoritxarrez. Langilea, horregatik, azken bi aroetan estatal munduan kokatzen da, batik bat. Goi klaseko Jaun-andrea eta Jauntxoren agerpena nabarmena da iraganeko erreferentzia historikoetan, lehen esan bezala, lanbidea Erdi Aroko burguen sorrerari lotzen baitzaio, gehienetan. Lanbidea, ekonomia eta langilearen deskriptoreak beti ez dira batera agertzen. Lanbidea bai baina ez beti langile erreferentziari lotua, ezta ekonomiaren esparruari lotua. Industrialgintzako langilea da, beraz, lanbideari zein ekonomiari gehien lotzen zaion adierazlea. Industrialgintzaren erreferentzia gehienak, bestalde, ez dira zehazten nongoak diren eta zehaztekoan, testuingurune estatalean kokatzen dira %54,50ko ehunekoarekin.

Sektoreak, hala edo honela, sarri erlazionatzen dira lanbidearen deskribatzailearekin ikonoen bidez. Gaur egungo testu liburuetan, lanbidearekin lotua gehien agertzen den sektorea nekazaritza izanik, testuinguratu gabe agertzen da edo bestela, testuinguru estatalari loturik. Testuinguru estatal honetan, bestalde, sektore gehienek dute adierazpen altua, hezkuntzak izan ezik. Horregatik, euskal testuinguru soziohistorikoan ez dago sektorerik nagusi denik. Testuinguru juridikoa besteekin alderatuz gero -zehaztu gabeko egoerak konparaketatik kanpo utziz gero-, ageri da merkataritza, osasun-



gintza eta hezkuntza direla sektorerik aipatuena. Hirugarren arotik ikusita, gorazko joera dago honakoetan: komunikabidean, aisialdian, kulturgingintzan, ikuskizungintzan (zirkoan, kiroltan...), hezkuntzan (eskolan edo ikerkuntzan...) eta merkataritzan (Estaturian zein Erkidegoari atxikitutako esparruan). Nekazaritza, lehen aroan, sektorerik garrantzitsuen eta aipatuena dela ikusten dugu. Gaur egun ere bai, baina ez lehen bezala, oraingoan ez zaio lotzen baserriaren munduari baizik ustiapen industrialak sortu dituen negutegiei, lur moten sailkapenei eta uzteiei eta merkataritzari. Garraioingintzak, egun, hirugarren aroan, agerpen gutxiago du. Lehen aroan garapen industrialak garraioari eta garraioideei lotzen bazitzaie, orain garapen tekniko zein teknologikoa hedabideen inguruan kokatzen da, eta baita astronautikaren alorrean ere. Horregatik, Unibertsorekin lotura zuzena duten lanbide erreferenteak sarriago ikusten dira gure ingurukoak baino. Ikasleak unibertsua baino gertuagoa duen Euskal lurraldeari dagokionez, hiru arotako testu liburuetan ez da behin ere agertzen loturarik aipatu honako osagaiekin: Baskonia, Euskal Herria, Ipar edo Hego Euskal Herriarekin. Esparru hurbileko aipamenetan Euskal Herriko lurraldeek ez dute agerpenik, Bizkaiak

eta Gipuzkoak salbu. Araba, Nafarra, Lapurdi, Zuberoa edo Nafarroa Beherea ez dira inoiz agertzen lanbide des-

kribatzaileari loturik. Lanbidearen eta ekonomiaren arteko loturari dagokionez, bestalde, hainbat kasutan, ez dute inolako harremanik erakusten. Agertzen denean kutsu soziokulturala baino gehiago politikoa ezartzen zaiola uste dugu eta, kasu horietan, lanbideak ekonomia estatalari eusten dio, ekonomia beti Estatuaren osagaitzat hartzen delako. Horrela ez bada, izaera hori estatuaren antolamendu autonomikoari ezarriko zaio. Dena den, kasu bietan, ekonomiak testuinguru hegemonikotik edaten du, ez testuinguru soziohistorikotik. Horrez gain, estatalaren aipamena egiten denean ekonomikoa eta industrializaera batera agertzen dira erlazio baikorren bidez.

Ekonomia deskribatzailea bera soilik aztertze ildotzat hartu dugunean, honako egoera islatu da. Testu liburuetan adierazpen gutxiago daude ekonomiaz lanbideaz baino. Ekonomia deskribatzailea argazkiz, grafikoz eta taulaz agertu arren, maparen bidez adierazten da. Sektoreei begira eta ekonomia deskribatzaileari loturik, hirugarren aroko testu liburuetan hartzen dute agerpenik nabarmena honako sektoreek: nekazaritzak, abeltzaintzak, meatzaritzak, aisialdiak, merkataritzak, garraioak, kulturgingintzak eta janarigintzak. Gainera, ekonomiaren deskribatzaileak izaera industrialak hartzen du hiru arotako testu liburuetan.



Ikonografian espreski erreferentzia horiek egitean Hegoaldeko lurraldeak

agertzen dira, 2. aroan. Ez Iparraldekoak. Egun Bizkaiari ia erreferentzia bikoitza egiten zaio eta Gipuzkoari haren erdia. Beste lurraldeak, ikonografikoki ez dira aipatuak. Ekonomia lurraldetasunetik ikusita egoera honela da: Euskal Herriak gero eta erreferentzia gutxiago du; egun %14,63koa baino ez. Espainiak ere gutxiago du, baina Euskal Herriak baino gehiago, %19,51a. Frantziak ere agertze maila gutxiago du egun, %12,91 soilik, baina erreferentzia gehienak, lehen eta orain, frantsesez idatzitako testu liburuetan agertzen dira. Azpimarratzekoa da Autonomia Erkidegoen datuak bigarren arotik aurrera EA Eri lotuta agertzen direla, %5,31tik %42,68ra pasatuz eta, hirugarrenean Nafarroako Foru Komunitateari ere lotzen zaiola, %18,29 ehunekoarekin, hain zuzen. Egun, beraz, lurralde antolamendu politikoa horiei lotzen zaizkie ekonomiaren aipamen gehienak; Iparraldea ia ez da aipatzen eta Hegoaldea gero eta gutxiago, %4,87a bakarrik.

Edukiari ematen zaien zentzua

Euskal Herriaren zientzia eta teknologia edo lanbideei buruzko datu hauek garrantzizkoak izanik ere, eduki horri ematen zaion zentzua non lekutzen den adieraztea funtsezkoa da gure ikuspuntutik. Sei adierazle erabili ditugu horretarako: *euskal historia* (Euskal Herriaren errealitate historikoari dagokion ingurune soziokulturala adierazten duena); *euskal juridikoa* (Estatuaren menpeko antolaketa juridiko-administratiboa islatzen duena); *nahasia* (aurreko esparruen nahastea agertzen den kasuetan erabilia); *erdal* (kanpoko herrien erreferentzia ematen duena); *estatala* (Frantzia edo Espainiako estatu-nazioekiko identifikazioa islatzen duena); eta *zehaztu gabekoa* (edukiak inon lekutu barik agertzen direnean erabili izan duguna). Gure aztergaiari dagokionez **2. grafikoak** edukia lekutzeko egoeren zehaztasuna argitzen digu:



2. grafikoa: Lanbidearen eta ekonomia-
ren testuinguraketa aroka (%etan)

Lanbidea, lehen aroko testu liburuetan euskal esparru historikoan kokatzen da kasu erdietan, estatalean eta zehaztu gabekoan aipamen nabarmen handiagoz. Ez da esparru juridikorik agertzen ezta nahasirik ere. Bigarrean, adierazpen hori erabat aldatzen da. Lanbidea esparru estatalean eta, batez ere, inon zehaztu gabeko horretan kokatzen delarik. Erkidegoaren adierazpen horrekin batera, euskal testuinguruak nahasteko joera agertzen hasten da, hirugarrenean joera hori harik eta markatuago ageriz. Egun lanbidea ez da euskal testuinguru historikoan kokatzen, bai juridikoan edo nahasian, eta batik bat, ingurune estatalean, baina lanbidearen benetako tokia zehaztu gabekoaren esparrua da, ia 10 kasutik 7tan.

Ekonomiaren deskriptoreak, berriz, lehen aroan ia adierazpen osoa esparru estatalean dauka, bigarrean gutxiago eta, hirugarrenean adierazpen gehienak kokatzen dira bai esparru estatalean bai esparru juridikoan; sasoi horretan erreferentzia nahasiak ugaritzen dira aurreko aroekin konparatuz gero. Ia ez dago Euskal Herriari lotutako ekonomia adierazpenik.

Arestian aurreratu bezala, argitaletxeek ez dute era berean jokatzen deskriptore hauekiko edota lan munduari loturiko besteekiko. Mugak muga, oraingoan soilik lanbidearen eta ekonomiaren deskriptoreekiko joerak konparatuko ditugu 3. aroko testu liburuetan, horretarako ondorengo 3. grafikoen adibideak erabiliz:

(ikus 3. grafikoa)

Hirugarren aroan argitaletxe gehienek zehaztu gabeko esparruan kokatzen dute lanbidearen deskriptorea, Ereinek salbuespenez testuinguru soziohistorikoa soilik erabiltzen baitu. Ehuneko oso baxuetan kokatzen da lanbidea Euskal Herrian. Elkar eta Bruño argitaletxeek Euskal Herrian kokatzen dituzte hainbat datu. Anayak ere bai, baina honek besteek ez bezala, lanbide aipamenak esparru estatalean eta juridikoan kokatzen ditu. Esparru estatalean kokatzeko joera markatuagoa da Santillana, Vicens-Vives eta Edelvives argitaletxeen kasuetan; horietan ere, esparru juridikoak presentzia handia hartzen du, Santillanaren kasuan nabarmen. Edebek eta SMek lanbidearen aipamena garbiki kokatzen dute esparru estatalean. Datu horiek grafikoen eskuinekoekin -ekonomiarenak- konparatuz gero, jatorriz euskaraz sortu diren testu liburuek



ekonomiaren aipamena testuinguru historikoan kokatzen dute inolako nahasterik egin gabe. Bestelakoa da gainontzeko argitaletxeen jokaera. Horietan guztietan, ekonomia deskriptorearen zehazteak ekarri ditu ingurune estatalean zein juridikoaren nagusitasuna eta egoera nahasia areagotzea. Anayak eta Santillanak aipamen batzuk testuingurune soziohistorikoan argi eta garbi kokatu arren, askoz presentzia gehiago eskaini diete gainontzeko testuinguruei, hots, esparru hegemonikoari, juridikoari, estatolari eta egoera nahasiari.

Ikongrafiaren datu hauek horrela emanak nahiko adierazgarriak badira, testu idatzian osotasuna edo esanguratasuna hartzen dute. Testuaren eduki azterketari ekin diogunean, diskurtsoaren eraikuntzaren barne antolamenduen hainbat estrategia behatu ditugu. Artikulu honen mugak hala behartuta, diskurtsoaren eraikuntza orokorrari baino ez diogu ekingo une honetan. Ikus daitekeenez, euskaraz ekoiztutako testu liburuen egoera dikotomikoa da oraingo eta orain arteko joerak konparatzerakoan 4. grafikoa erakusten duenez. Orain artekoan (1. eta 2. aroetan), testu liburuek Euskal Herriko Euskal Herriko burutzen dira. Baserri giroan kokatzen dira lanbideak eta nekazal kulturaren birkokatzen dira aurrerapen tekniko eta teknologikoa. Eguneroko beharrianei lotzen zaizkie lanbideak, prozedura teknikoak, eskulana, ohiturak, olerkiak, kantzak, zein aurrerapen zientifikoak zein industriallak, baserri giro hori hiritarragoa agertu arren. Euskara euskal kultur biltegia da, balio euskaldunak agertarazten dituen, non herriaren garapena Aberriarenaz identifikatzen den.

(ikus 4. grafikoa)

Gaur egun (3. aroan), berriz, curriculum estataletik (Erkidegoetan egokitutako horietatik) edaten dute testu liburuek. Lanbideak Erkidegoetan kokatzen dira eta garapen industriala haiei zein estatutuari atxikitzen zaio. Lanbideak eta prozedura asko burokrasian oinarriturik daude, Administra-

3. grafikoa: Lanbidea eta ekonomia argitaletxeka (Hirugarren aroa: 1992-2000)



zioaren eta honen zerbitzuetako lan intelektuala eta eskulanaren arteko bereizketa agertuz. Bi erreferente hegemoniko horien artean ugaritzen hasi da testuinguru nahasia, non, euskalduntasunaren balioak ez diren zehatz eta tinko agertzen, bai, horrexegatik, horren ondoan garbi agertzen den eredu hegemonikoarenak. Horregatik, batean erro kulturala duen komunitatea aipatzen da eta testu liburuak Euskal Herri osorako ekoizten dira. Bestean, beriz, lan mundua erro politikoa duen Komunitateari lotzena da. Lurralde banaketa politikoa esparru geografikori, sozialari zein kulturalari aplikatzen

zaio Euskal Herriaren entitate soziokulturala desagertuz doan bitartean. Horren kariaz, Iparraldean eta Hegoaldean testu liburuak berezituak daude, eta Hegoaldeari dagokionez EA Erako ekoizten dira batzuk eta Nafarroako Foru Komunitaterako beste batzuk.

Ondorioztu dezakegu, beraz, zientzia unibertsalaren izenean jakintza eta ogibide batzuk izendatzen direla, esparru hegemonikoan aintzakotzat hartzen direnak, batik bat. Goi mailako ogibideak eta Estatuaren burokraziari loturikoak sarriago agertzen zaizkigu, herri xehearen bizibideak edo eginalak baino. Unibertsaltasunaren ize-

nean partikularitasuna eta herritar kultura alboraturik edo bigarren mailan geratzen da, beraien bidez lantzen den edukia erabat testuingururik gabe agertzen zaigularik. Kontuan edukirik kultura gauza propioa dela -bestela ez da- eta unibertsaltasuna (Santamaria) bi modutara uler daitekeela, batetik, kultura orokor gisa, eta, bestetik, herritar kultura gisa, teknika eta zientzia, gure kasuan, eta oro har irakaskuntzan lantzen den edozein ezagutzak -unibertsala den heinean-, errealitate guztietatik edan beharko luke, baita partikularretik ere, bestela ez bailitzateke izango ez zientzia, ezta unibertsala ere. Bestalde, herri bakoitza unibertsalitateara ailegatzen bada bere historiak eta ohiturek markatzen dizkioten urratsetatik, batera bizi izan den euskal esperientzia hori bertaratu eta bertan kokatu beharko litzateke testu liburuen bitartez lantzen den curriculumean ere. Gizakiak teknikaren bidez ingurunea -natura, objektuak, sustantzia materialak...- aldatzen badu bere bizi kalitateak hobetzeko eta beharizanak asetzeko, esan behar da horiek lantzeko bere teknika eta kultura propioak dituela, bereak; baina teknika eta kultura horiek artisautza eta aurrezientifikoaren mailan agertzen baditugu, herri horren teknologia ukatu egiten da, atzerakoitzat joz. Teknologia guztia teknika da, baina ez alderantziz, zeren teknologiak ezagutza zientifikoaren garapenari loturiko aurrerakuntza industrialari egiten baitio erreferentzia. Horregatik, lan munduaren adierazpen gehienak, hots, goi lanbideak (lan intelektuala zein burokratarena), aurrerapen teknikoak eta teknologikoak, eta zientzialarien agerpena testuinguru hegemonikoan identifikatzen diren bakoitzean, gure herriaren lorpen intelektualak ukatzen dira. Hemendik ondorioztatzen dena da ekonomiarik ez duen herria, hots, produkzio sistema garatu batek eskatzen dituen zientzia, teknika eta teknologia ez dituen herria, herri atzeratua dela. Lan mundua ez bada identifikatzen euskal munduarekin, norbere kulturaren ezagutza atze-

4. grafikoa: Orain arteko eta oraingo testu liburuen arteko konparaketa

- Euskal Herriatik buruturik eta abiaturik

- * Herrian sustraitutako lan mundua
- * Baserri giroa

- lanbideak nekazal kulturaren kokatuak eta garapen industrialean birsartuak
- eguneroko beharrezkoen lotua
- euskara = kultur biltegia (balio euskaldunak agerrarazteko)
- euskal abertzaletasuna oinarri
- herriaren garapena = Aberriarena
- erreferentzia estatalik eza

- Curriculum estataletik (erkidegoetan egokitutakoetatik) eratorrita

- * Erkidegoen banaketa politikoaren arabera
- * Hiritarragoa / klase ertainari lotuagoa

- lanbideak Erkidegoetan kokatuak, eta garapen industrialak haiei zein estatuari atxikiturik (testuinguru nahasia ugaritzen)
- euskara = ez da kultur biltegia (erabilera funtzionala)
- estatu balioak oinarri
- erkidegoaren garapena = Estatu
- euskal erreferentzia ez-oso, hegemonikoaren alde

rakoitzat jotzea lortzen da. Efektu bera indartzen da Euskal Herriari buruzko aipamen horiek, iraganean soilik kokatzen direnean, hots, esaten denean lehen bazituela baina orain ez.

Aipatu berri dugun arrazoian oinarriturik gaur egungo testu liburu gehienek edukiek Estatuan eta talde hegemonikoan dute sorburua. Testu liburua programa ofizialetara egokitzen da Hezkuntza Administrazioaren onenari estuki loturik, baina argitaletxe batzuek kultura edukiak Euskal Herriaren bertan kokatzen dituzte eta besteek, aldiz, testuingurune hegemonikoan kokatzen dituzte. Lehenengoak, jorera soziohistorikoak, bere jatorrian edo izaeran uztartu nahi dituzte jakintza unibertsalari; hala ere, Euskal Herriko ikasleen zati txiki batengana baino ez da heltzen -kontuan hartuz: argitaletxe kopurua, erdarazko ekoizpena, testu liburuen zabalkundea eta, hizkuntzaren arabera erabilera-. Bigarren jorera, berriz, hegemonikoa da, hedatuena eta kanpoko argitaletxeek edo euren filialek ezarritakoa. Estatu boterearen balio ez-euskaldunak goiburu dituzten Autonomia Erkidegoen ikuspuntutik edaten dutenak ere badira: enbor etnikotik osagai zatikatuak sartu direlako, edota ezagutza eta kultura antolamendu politikoaren morrontzan agertzen direlako -gaiak jatorrizko hizkuntzan datozelako, nahiz eta geroago euskaraz agertu-.

Amaitzeko, gure ikerketaren sintesia eginez esaten dugu:

1) Euskaraz idatzitako testu liburuetan Euskal Herriko testuinguru soziokulturala desagertuz joan dela aro XX. mendean zehar. Egun, testuingurua soziokulturala baino gehiago politikoa da, Estatu hegemonikoren eredu politikotik edaten duena.

2) Gure eskoletako ikasle euskaldunak testu liburuen bidez euren identitatearen desjabetze kultural eta intelektual horretan hezten direla, desjabetze horren parean kultura hegemonikoaren balioak gorai patzen direlarik.

3) Testu liburuetan nagusitzen den egoera nahasiaren anbiguetatean (batzuetan Euskal Herriaren, besteetan Erkidegoaren, edo egoera nahasian) euskal eredu finkoa falta da. Horretan galtzailer suertatzen da gure ikaslearen nortasunaren eraikuntza, hots, gure herriaren nortasun kolektiboa.

Bibliografia:

- ANGULO RASCO, J. F.: "El gato por liebre o la descentralización en el sistema educativo español", in Cuadernos de Pedagogía, 222 (1994), Bartzelona, 74-83.
- APPLE, M. (1986): *Ideología y currículo*, Akal Universitaria, Madril.

- APPLE, M.: *Política cultural y educación*, Morata, Madril, 1996.

- APPLE, M.: *Educación y poder*, Paidós-Mec, Bartzelona-Madril, 1997.

- CHOPPIN, A.: *Les manuels scolaires*. Histoire et actualité, Hachette Éducation, Paris, 1992.

- CHOPPIN, A.: "Los manuales escolares de ayer a hoy: el ejemplo de Francia", in *Historia de la Educación*, 19 (2000), Revista Interuniversitaria, Ediciones Universidad Salamanca, Salamanca, 13-37.

- DÁVILA BALSERA, P.: "Los libros escolares en euskera", in ESCOLANO, A. (Zuz.): *Historia ilustrada del libro escolar en España. Del Antiguo régimen a la Segunda República*, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 599-620, (1997).

- DÁVILA BALSERA, P.; ERRIONDO KORSTOLA, L.: "Los libros de texto en euskera", in ESCOLANO, A. (Zuz.): *Historia ilustrada del libro escolar en España. De la posguerra a la reforma educativa*, Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 519-546, (1998).

- FERNANDEZ, I.: *Oroimenaren hitza. I-kastoren historia 1960-1975*, UEU-Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1994.

- GOODSON, I. F.: *Historia del curriculum. La construcción social de las disciplinas escolares*, Pomares-Corredor, Bartzelona, 1995.

- HABERMAS, J.: *Teoría de la acción comunicativa*, Ed. Cátedra, Madril, 1989.

- INTXAUSTI, J.: "Euskal ola zaharrak" in Askoren Artean: *Lur eta gizon, Euskal Herria*, Jakin, Oñati, 309-338, (1974).

- IZTUETA, P.: *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1996.

- IZTUETA, P.: *Hezkuntza, Hizkuntza eta Boterea Euskal Herriaren*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2000.

- JOHNSEN, E.: *Libros de texto en el caleidoscopio. Estudio crítico de la literatura y la investigación sobre textos escolares*, Ediciones Pomares-Corredor, Bartzelona, 1996.

- KEMMIS, S.: *El curriculum: más allá de la teoría de la reproducción*, Morata, Madril, 1993, (1988, 2. argit.).

- SANTAMARIA, C.: "Unibertsitateko kulturaz", in *Jakin*, 1 (1977), Jakin, Arantzazu, 67-71.

- ZABALETA IMAZ, I.: *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza (1895-1923)*, Doktoresetia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia, 1998.

G A I A
Zientzia, teknologia eta lanbideak
Euskal Herriko testu liburuetan

G

Javier Murillo

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko
irakaslea eta ikertzailea



Ikasleak pozik joaten al dira
eskolara? Zoriontsuak al dira
eskolan? Irakasleak zoriontsuak
al dira beraien lanean? Hala
bada, eskola ona izango da



Legeak ebaluatze-ko neurri gabeko obsesio bat daukela uste dut. Denok dakigu ebaluazioa positiboa dela, baina arazoa bere eragin gaiztoetan dago. Gaurkoz ikasgai gutxi batzuetako ezagutzak ebaluatze-ko soilik dauzkagu kalitatezko erremintak, ez elkartasuna, herrien arteko ulermena, tolerantzia, sormena, espiritu kritikoa... memento honetan hainbeste behar ditugun balioak ebaluatze-ko

Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakasle hau ikerketa munduan eskarmentua duena da. Eskola aldaketaren eta eraginkortasunaren Ikerkuntza Sare Iberoamerikarreko (RINA-CE) koordinatzailea eta International Congress on School Effectiveness and Improvement erakundeko zuzendaritza batzordeko kidea da. Liburu eta artikulu ugari argitaratu ditu hezkuntzako kalitatea, ekitatea, eraginkortasuna eta aldaketaren inguruan, interes gehien pizten dion gaia izanik.

Madrilgo Hezkuntza eta Kultura Ministeritzako Hezkuntzako Ikerketa eta Dokumentazio Zentroan (CIDE) 12 urtez aritu da lanean, azken 6 urtetan ikasketen zuzendari moduan. 2002ko uztailean publikoki adierazi zuen FAEko hezkuntza sistemak ondo funtzionatzen zuela, eta adierazpen horien ondoren, bere kargutik kendua izan zen.

Hezkuntzaren ikerketan egin dituen lanak egin ondoren eta pilatu duen esperientzia bizkarrean duelarik, zeresan ugari du. Kalitate Legea hizpide harturik, kalitate kontzeptuaren azpian egon litekeenaz aritu gara berarekin.

Zer da kalitatea hezkuntzan?

Irudika dezagun objektu material bat: galtza batzuk, adibidez. Horien kalitatea zehaztea gauza erraza dela dirudi, baina agian ez da hain erraza. Adibidez, kriterio bezala bezeroen asetze maila erabil dezakegu, eta orduan, bezeroak galtzekin gustura baldin badaude eta erosten baldin badituzte, kalitatezkoak izango dira. Edo kriterio bezala gutxieneko batzuk betetzea jar dezakegu, esate baterako, zenbat garbitualdi jasaten dituen kolorea galdu gabe edo puskatu gabe... Bestalde, galtza horiek egiteko gaizki ordaindutako eskulana erabili baldin bada, kalitatezkoak izango al dira? Edo ingurumena kaltetzen baldin badute, kalitatezkoak izango al dira? Murrizketa horiekin zailagoa suertatzen zaigu baieztapen kategoriko bat egitea.

Beraz, galtza batzuk onak diren edo ez ikustea hain zaila baldin bada, pentsa zein zaila izango den hezkuntzaren kasuan, eskola baten kasuan edo gela baten kasuan.

Kalitatea kontzeptu soziala eta historikoki itxuratutakoa da; hau da, esaten duen kolektiboari eta egiten den memento historikoari lotuta dago. Esate baterako, gurasoentzat kalitatezko ikastetxea ezaugarri batzuk dituen



izango da, Eusko Jaurlaritzarentzat beste ezaugarri batzuk dituen, UNESCO-rentzat beste batzuk, Koreako Hezkuntza Ministerioarentzat beste batzuk... Bakoitzak bere irudia du kalitatezko hezkuntza sistemaz, ikastetxeaz edo gelaz. Eta noski, guk memento honetan kalitatezko eskolatzat hartzen dugunak ez du zerikusirik gu txikiak gineneko eskolarekin. Irizpideak guztiz ezberdinak dira.

Zein irizpide erabiliko zenituzke zuk kalitatea definitzeko?

Nik uste dut kalitatearen kontzeptuak bi ikuspegi dituela, txanpon baten bi aldeak bezala. Alde batetik helburuen eta balioen ikuspegia dago, eta beste aldetik prozesuen eta bitartekoen ikuspegia.

Lehenengo ikuspegitik zer-nolako eskola nahi dugun galdetu behar dugu, eta galdera hori, nahi dugu gizartearen kontzeptuarekin eta gizakiaz dugun kontzeptuarekin lotuta dago. Eskolako balioak gizarteko balioekin erlazionatuta daude.

Balitzko egoerak aztertzeko Henry Levinen eskema baliagarria izan dakiguke, zeinak lau erpinetaz hitz egiten duen. Erpin bat askatasuna lehenesten duen legea da: askatasun pertsonala, gurasoen aukera askatasuna, katedra askatasuna, ikaslearen askatasuna... Erpin honetan balio gorena askatasuna da.

Bigarren erpina kohesio soziala da, eta hezkuntza komunitatea osatzen duten kide guztiek esperientzia eta jakintza berdinak edukitzeko aukera ematen duen hezkuntza sistema bilatzen du honek. Bere helburua da sozializazio kontzeptua eta komunitateko kide sentimendua indartzea.

Hirugarrena eraginkortasuna da. Kasu honetan helburuak ahal den bitarteko gutxienekin lortuko dituen hezkuntza sistema bilatzen da. Beste modu batera esanda, dagoen diruari ahalik eta errendimendurik onena ateratzea.

Laugarrena ekitatea da, hots, aukera berdinak izateaz gain, prozesuetan, emaitzetan eta abar ere ekitatea erabiltzea. Alegia, emaitza berdinak eta maila

akademiko berdinak dituzten ikasleek sarrera berdinak izatea gizaratean.

Lau erpin hauek aurrez aurre daude binaka: alde batetik eraginkortasuna eta ekitatea daude, eta bestetik askatasuna eta kohesio soziala. Politika neoliberaleretan askatasun pertsonala eta eraginkortasuna nagusitzen dira, eta izaera sozialagoa duten politiketan, berriz, ekitatea eta kohesio soziala.

Kalitate Legea zein erpinetan oinarritzen dela uste duzu?

Kalitate Legeak kalitate eredu bat hautatzen du eta bere puntu garrantzitsuenak ahaleginaren pedagogia, lehiakortasuna, diskriminazioa eta zentroetako parte-hartzearen eta demokraziaren murrizketa dira.

Ahaleginaren pedagogiari dagokionez, badirudi hori dela Aznarri gusatzen zaion elementua, eta nik, iker-tzaile naizen aldetik, eskerrak ematen dizkiot hamarkada askotan dilema izan den galderari erantzun diolako. Orain arte ez genekien eskola porrotaren errua norik zuen, hots, gizarteak, familiak, hezkuntza sistemak, eskolak, irakasleek, ikasleek... Eta orain argitu dute: errua ikasleek dute, ez direlako behar adina saiatzen. Hor dago gakoa. Ideia horretan oinarrituta, ahaleginaren pedagogia diskriminazio egoera legitimatzen ari da; hau da, ikaslea saiatzen ez bada, kanpora daiteke. Legeak ezartzen dituen ibilbideen helburua da eliteak goiz bereiztea ahalegin ezaren aitzakiaz baliatuta.

Bigarren ezaugarria lehiakortasuna dela esan dut. Legeak konpetentzia baxia bultzatzen du; ikasleen artean ibilbideen bitartez; irakasleen artean hierarkiak bultzatuz eta hoberenak "sartuz"; zentroen artean "lehen mailakoak" eta "bigarren mailakoak" izendatuz... Eskola gizarteko konpetentzia krudeletik at zegoela uste genuenok oker geunden...

Era berean, partaidetzaren printzipioa deuseztatu egin da, eta hori oso larria iruditzen zait. Partaidetza printzipioaren arabera, ikastetxeko Gobernu Organo Gorena komunitateak osatzen



du; familiekin, irakasleekin eta ikasleekin. Kalitate Legearekin, ordea, jada ez da horrela. Eskola Kontseilua ez da jada Gobernu Organo Gorena, kontrol eta kudeaketa organo bat baizik. Eskola Kontseiluak zeukan funtzio esanguratsuenetako bat zuzendaritzaren hautaketa zen, eta orain ez dakigu zein batzorderen eskuetara pasa den zeregin hori, eta ez dakigu zein irizpideren arabera. Azken finean, gure hezkuntza sisteman hasieratik zegoen partaidetzaren printzipioa ezabatu egiten da lege honekin.

Ebaluazioa ere asko aipatzen da legean: Lehen Hezkuntzaren amaieran ebaluazio bat egingo zaie ikasle guztiei, DBHren amaieran ere bai, Baxilergoaren amaieran errebalida... Zer iritzi duzu horren gainean?

Legeak ebaluatzeke neurrigabeko obsesio bat daukala uste dut. Denok dakigu ebaluazioa positiboa dela ikasleekin, irakasleekin, zuzendariekin, ikastetxeekin eta hezkuntza sistema osoaren jardueraren optimizatzeko, zuzenean inplikaturakoei informazioa ematen baitie beraien lana hobetzeko. Uste dut le-

Legeak
kompetentzia basatia
bultzatzen du; ikasleen
arteak ibilbideen
bitartez; irakasleen
arteak hierarkiak
bultzatuz eta
hoberenak sarituz;
zentroen artean lehen
mailakoak eta
bigarren mailakoak
izenatuz. Eskola
gizarteko kompetentzia
kudeletik at zegoela
uste genuenok oker
guden... Era berean,
partaidetzaren
printzipioa deuseztatu
egin da, eta hori oso
larria iruditzen zait

geak neurria gaintu duela ebaluatze-ko obsesio horretan.

Arazoa ebaluazioaren eragin gaiztoetan dago. Gaurkoz ikasgai gutxi bultzatuko ezagutzak ebaluatze-ko soilik dauzkagu kalitatezko erremintak, ez elkartasuna, herrien arteko ulermena, tolerantzia, sormena, espiritu kritikoa..., memento honetan hainbeste behar ditugun balioak ebaluatze-ko. Gero, arrazoi teknikoengatik, proba horiek testen bitartez ikasleek hizkuntzetan, matematikan, natur zientzietan eta gizarte zientzietan dituzten ezagutzak ebaluatze-ko dituzte. Kontuan hartzen baldin badugu ebaluazio horien emaitzak komunitateko hainbat kideri informatzeko erabiliko direla, baliatze-ko ikastetxearen bizirau-penerako ezinbesteko faktore bihurtzea. Modu horretan, Lehen Hezkuntzako eta DBHko irakasleak, Batxilergoeko selektibitatearekin egiten duten bezalaxe, beraien ikasleen puntuazio altua ateratzeaz soilik kezkatuko dira. Baina hiritarrak heztea matematikako probetan puntuazio onak ateratzen dituzten subjektuak heztea baino askoz gehiago da; askoz gehiago eta konplexuagoa.

Ezer positiborik ikusten al diozu Kalitate Legeari?

Gauza gutxi. Adibidez, eskola komunitatea esnatze-ko eta ikastetxe askotan berriro Hezkuntzaz, letra larriz, hitz egiten hasteko balio izan duela pentsatzen dut. Demokraziaren lehen urteetan Berrikuntza Pedagogikoko Mugimendua maila gorenera iritsi zen eta biltzarrek milaka pertsona biltzen zituzten. Urte-ko urtera mugimendua hiltzen joan da eta irakasleok lo hartu dugu. Badirudi lege honek lortu duela irakasleak esnatzea, erreakzionatzea eta hezkuntzaz hitz egiten hastea. Horrela, datorkigun zerbaiten aurka bo-

rrotatzeko kohesio bat sortu da. Nik uste du hori oso garrantzitsua dela; eskola komunitatea esnatzen ari da, eta hori oso esanguratsua iruditzen zait.

Zuk nolako kalitatea planteatuko zenuke?

Niretzat kalitatezko eskola ikasle guztien eta bakoitzaren garapen integrala bilatzen duena da, denona eta denontzat den eskola. Alde batetik ikaslearen garapen integrala. Ez ditugu matematika eta hizkuntzak irakasten dituzten eskolak soilik behar, baizik eta herritar ezsexistak, ez biolentoak eta solidarioak prestatu-ko dituzten eskolak. Eta bestetik, ekitatea, utziezina den balio gorena eta kalitate-ko bereiztu ezin dena bezala. Eta horretarako, klima edo giro positiboa egotea biltartekoa eta helburua da.

Zoriontasuna eskolaren helburu bat bezala ikusten dut. Zoriontasuna da eskolaren helburuetako bat. Eskola bat ona den edo ez ikusteko aldagairik onena zoriontasuna da. Irakasleak pozik joaten al dira eskolara? Zoriontsuak al dira eskolan? Irakasleak zoriontsuak al dira beraien lanean? Hala bada, eskola ona izango da.

Zoriontasun hori Haur eta Lehen Hezkuntza lortzea errazagoa dirudi. Nola lortu Bigarren Hezkuntzako gazteekin?

Zoriontsua izateak ez du esan nahi egun osoan jolasean eta hedonismoaren kutxan sartuta eduki behar direnik. Bai Lehen Hezkuntzan eta bai Bigarren Hezkuntzan giro ona lortzen badugu, ikasiko dute. Irakaslea Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan edo Lanbide Heziketan pozik, gustura eta lagundutasen-ekin baldin bada, gustura joango da. Hala ez bada, ez da ahaleginduko eta sistematik at geldituko da. Horretarako, behar duten





laguntza eman beharzaie eta horretan asmatu egin behar dugu.

Baina hezkuntzaren kontraesan bat lanen zailtasunarena da. Beste edozein lanbidetan lanik zailenak eta konplexuenak profesional onenek egiten dituzte: zubirik konplexuena arkitekto-rik onenak, ebakuntzarik konplexuena kirurgialaririk onenak... Eta hezkuntzan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: talderik errazena eta lasaiena irakasle onenak hartzen du, eta zailena, gatazkatsuena eta laguntza gehien behar duena irakasle berriarentzat uzten da. Eta ez luke hala izan behar. Katedratikoaren zeregina ez dadila izan departamentu bat zuzentzea eta eskola gutxiago ematea, baizik eta ikasle zailenekin jardutea. Horregatik da katedratikoa eta horregatik ordaintzen zaio gehiago. Irakasle onenak gelatik irten dira: zuzendaritzara, administrazio-ra... Bere lana uzten duena al da irakas-

le onena? Mentalitate horrekin zaila izango dugu arazoak konpontzea.

Zein faktore behar dira eskolak kalitatea lortzeko?

Ikerketa guztien arabera, faktore garrantzitsuena eskolako klima edo giroa da: ikasleen arteko harremana, irakasleen eta irakasleen artekoa, irakasleen eta familiaren arteko...

Bigarren faktorea eskola komunitateko partaideen espektatibak dira. Bai irakasleen espektatibak, bai zuzendaritzak irakasleekiko dituen espektatibak, bai gurasoek eskolarekiko dituztenak, bai administrazioak zentroarekiko dituenak... Izan ere, ikasleak guk espero duguna izango dira. Hau da, irakasleak uste badu ikasleak porrot egingo duela, egin egingo du; gurasoek eskola txarra dela uste badute, hala izatea lortuko dute. Beraz, garrantzitsuena konfiantza, espektatiba altua eta fedea izatea da.

Hirugarren faktorea kultura da. Eskola komunitate osoak bere eskola onena dela pentsatzea garrantzitsua da, hots, ikuspegi berdina edukitzea.

Eskola kultura hori edukitzeko beharrezkoa da gurasoen partaidetza, eta hori da laugarren faktorea. Gurasoek parte hartzen duten eskolak dira onenak. Eta parte hartzea ez da eskola kontseiluan egotea, baizik eta inplikazioa, ikasleak egunero egiten duen lanarekiko konpromisoa, eskolaz kanpoko lanen jarraipena, eskolako erabakietan inplikitzea...

Bosgarren faktorea zuzendaritza da. Ez dago eskola onik zuzendaritza onik gabe. Zuzendari ona izan arren, eskola txarra izan liteke, baina eskola on guztietan zuzendaritza talde ona egongo da.

Seigarren faktorea dirua edo bitartekoak dira. Eraikin ona izateak ez dakar eskola ona izatea, ez da funtsezko aldagaia, baina garapen bidean dauden herrialdeetan diruak garrantzia du.

Zazpigarren faktorea irakasleen talde lana da, eta hori eskola kulturarekin oso lotuta dago.

Eta azkenik, ikasketaren antolaketa dago. Aldaketa prozesuak martxan dituzten eskolak onak dira.

Beste edozein lanbidetan lanik zailenak eta konplexuenak profesional onenek egiten dituzte. Eta hezkuntzan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da: talderik errazena eta lasaiena irakasle onenak hartzen du, eta zailena, gatazkatsuena eta laguntza gehien behar duena irakasle berriarentzat uzten da. Mentalitate horrekin zaila izango dugu arazoak konpontzea

Ebaluazio eredu bat aniztasunari ekiteko

Sukarrieta taldea

Artikulu honetan gure ikerketa baten emaitzen berri emango dizuegu.

Ikerketa honekin ikaslearen ahalbidetuko digun lan eredu bat lortu nahi izan dugu, ebaluazioa hobekuntza elementuz erabiliz, eta kontuan izanik ikasleek irakaskuntza-ikaskuntza prozesua beraien autorregulazio prozesutik, jarraituz baina, burutzen dutela.

Gure esperientzia edo ikerketa Sukarrietako zentroan garatu da, Sukarrietako Eskola Saiakuntzarako Zentroan (SESZ). Bizkaiko ikastetxeen zerbitzura dagoen hezkuntza baliabide bat da, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta Bilbao Bizkaia Kutzako Gizarte Ekintzak orain dela 20 urte egin zuten hitzarmen baten bidez bideratua. Beraz, adinez nagusia da, baina oraindik gaztea.

Bertan bi helburu nagusi ditugu:

1. irudia



- Ikasleei begira, "ingurune fisiko eta pedagogiko bat eskaintzea naturara hurbiltzeko, eta komunikaziorako eta elkarbizitzarako esparrua zabaltzea".

- Eta irakasleei begira "leku bat eskaintzea, bai esperientzia pedagogikotarako eta bai materialak sortzeko, betiere berrikuntza pedagogikoaren testuinguruan".

Helburu horiek astebeteko egonaldi batean garatzen dira. Astero hainbat zentro eta herriako 110 ikasle inguru elkartzen ditugu 25 orduko lan-proiektu batean eta, bide batez, jende berriarekin bizitzeko aukera eskaintzen die-

gu. Ikasturtean zehar horrelako 30 aste betetzen ditugu, eta 3.200 ikasle eta 150 tutore pasatzen dira.

Gure lanaren ardatzak Ingurumen Hezkuntza (IH), Lantegien arloa eta Hezkuntza Ikerkuntza dira.

Azken urteotan, zentroaren jarduerak **Ingurugiro hezkuntzari** buruzko lan-proiektu batzuen garapenean oinarrituta, irakaskuntza-ikaskuntza **eraikitzailearen** eskemaren ildotik abiatuta, **ebaluazioa** ardatz izanik, eta **bost ingurumen problematiken** inguruan: basoa, ura, Urdaibaiko itsasadarra, lurra (nekazaritza eta abeltzaintzari buruzkoa) eta planeta berdea (kontsumo ohiturari buruzkoa) (**1. irudia**).

Oraingo honetan, alderdi horietatik guztietatik ebaluazioari erreparatuko diogu. Aipatutako lan-proiektu horien programan hiru fase bereizten ditugu:

1. Hasierako Diagnostikoa
2. Fase Prozesuala
3. Fase Gehikorra

Programa horien ardatza **ebaluazioa** dugu. Ebaluazio eredu honekin ikasleak bere **irakaspen ohartzeaz** gain, bere ikaskuntza **prozesuaz jabetzea** ere lortu nahi dugu, hau da, **irakaspen metakognitiboa** erdiestea. Era horretan, alde batetik, ikasleak bere barne prozesuarekiko inplikazioa eta ardura izatea erraztuko da (eta hau IHk eskatzen duen jarraitza hartze helburuarekin lotuta dago)

eta, bestetik, bere ezaguera erakitzen ikasiko du. Jarraian fase horien barrenak ikusiko ditugu:

1. fasea: fase honen helburuak motibazioa, problematikaren aurkezpena eta sentsibilizazioa ditugu. Erabiltzen ditugun erremintak aurretiazko ideiak ikertzeko probak eta eduki sarea dira.

1. faserako ikasleen aurretiazko ideiak ezagutzea ezinbesteko **abiapuntua** da. Gure ustez, edozein irakaskuntza-ikaskuntza prozesu ezin da hasi ikasleek ezagutzen dutena jakin barik.

Aurretiazko ideiak **oso tinkoak** izaten dira, lotura sakonak dituzte burmuineko egituran. Horregatik, oso zaila da haiek zuzentzea edo aldatzea.

Baina, orduan, **noiz** zuzentzen dira? Orokorrean, aurrerapen edo abantaila bat ikusten denean gertatzen da ideien aldaketa, jarreraren kasuan, batez ere. Kontzeptuen aldaketa, aldiz, askotan garapen ebolutiboarekin batera gertatzen da.


Hasierako diagnostiko indibiduala egiteko erabiltzen ditugun erremintak hauexek dira: **aurretiazko ideiak ikertzeko probak**.

1995ean egin genuen ikerketa dugu oinarri (**2. irudia**). Eta horrez gain, asero, ikasle eta talde guztiei egiten dizkiegunak. Ikasle bakoitzari proba bat edo bi egiten dizkiogu. Problematika bakoitzak bere-berezko probak ditu. Adibidez, **3. irudian** ikus ditzakegu lan-proiektu batzuen probak.

2. irudia



3. irudia



Bigarren erreminta eta taldearen prognosia egiteko erabiltzen dena eduki sarea dugu (**4. irudia**).

Eduki sare hori talde osoarekin egiten dugu, ahoz. Irakaslearen galderarekin eta ikasleen erantzunekin osatzen joaten gara eta ideia berriak aurrekoekin lotzen saiatzen gara.

Bi erreminta hauek hausnartu eta gero, ikasleen garapen gune hurbilera hurrera gaitzke, eta nondik has gaitzkeen jakingo dugu.

2. fasea: fase honen helburuak ezaguera garatzea, jarduerak burutzea eta kontzientziazioa lortzea dira.

Bigarren fase honetan hiru memento ezberdin antolatzen ditugu, bakoitza bere berezko erremintekin :

- 1. *Prest!*
- 2. *Helburuen irudikapenaren*

egiaztapena.

3. Erregulaziorako eta autorregulaziorako beste mekanismo batzuk.

1. *Prest!* Saio baten lehenengo mementoan kokatzen gara. Horretarako, Gowin-en Verreminta erabiltzen dugu. V-ak lan egiteko prozesua idatzita aurkezten du, era sintetiko eta grafikoan (**5. irudia**).

V-a era honetan antolatzen da:


* *Galdera gakoia:* saioaren markoa definituko du. Hurrengo guztiari zentzua emango dio.

* *Zer egingo dugu?:* saioaren gutxieneko helburuak jasoko ditu.


* *Nola egingo dugu?:* metodologia eta planifikazioa batuko ditu.

* *Zertarako?:* galdera gakoaren erantzuna eta saioaren xedea adierazi-

4. irudia



5. irudia



ko ditu. Ingurumenarekin zerikusia duen jarrera aldaketaren bat jasoko du.

Adibide moduan, basoa ezagutu baino lehen egin daitekeena ikus dezakegu hemen.

Horrekin guztiarekin zer lortzen dugu?:

- **Helburuak adostea:**

Prozesu honek ikasleen eta irakaslearen helburuak lotzen laguntzen du.

- **Helburuen irudikapena:**

Ikasle bakoitzak egin behar duenari buruzko irudia egiten du bere buruan.

- **Ekimenaren aitzinapena eta planifikazioa:** ikasleak lana egiteko planifikatu egiten du eta emaitza aurreikusi egiten du.

- **Ebaluazio irizpideak adostea:**

Hasiara batean helburuak beraiek ebaluazio irizpide bihurtzen dira. Nahiz eta gero prozesuan zehar, irakas-

pen berriak egitearekin batera, ebaluazio irizpide berriak agertzen diren. **6. irudian** adibide bat ikus daiteke.

2. *Helburuen irudikapenaren egiaztapena.* Aurretik esandakoarekin helburuak agerian gelditzen dira, eta normalean irteera bat egiten dugu ingurunera. Behin lekuan bertan gaude larrik (basoan, errekan, paduran, kostaldean nahiz araztegian, errausteko labean edo ortuan) saioaren irakaspen ekintzak hasi baino arinago, ea helburu horiek ikasle guztiek bereganatu dituzten egiaztatzen saiatzen gara.

Guk helburuen irudikapenak egiaztatze galdetegia proposatzen dugu (egia/gezurra). Bereganatu dituzten edo ez jakiteko informazioa emango du eta, horrekin batera, lekua eskainiko dio erregulazioari.

3. *Erregulaziorako eta autorregulaziorako beste mekanismo batzuk.* Hi-

ru mekanismo ezberdin erabiltzen ditugu ikaslea ikasten ari denaz eta bere ikaste prozesuaz jabetzeko. Hau da lehenengoa:

Saioan zehar, gaiaren berezko edukiak lantzean **mekanismo didaktiko** batzuk txertatzen dira, jardueren garapena erregulazioz eta autorregulazioz blaitzeko asmoz.

Hiru edo lau galdera zehatz izaten dira batzuetan, ikasleak bizi izan duen ikaste prozesuari buruzkoak. Adibidez, *zer berri ikasi duzu?, zergatik?, zer da garrantzitsuen?, zertarako?, zer falta zaizu gaia menperatzeko?...* Beste batzuetan ikasitakoari izenburua jarrarazten diegu. Saioari dagokion leloa asmatzeko ere eska dakieke, batez ere, ingurugiro hezkuntzari dagozkion jarrerazko edukiari lotutakoak.

Irakaskuntza-ikaskuntza saioaren jarduera multzoa gurpil baten moduan ikusiko bagenu, esandako mekanismoak gurpilaren erradioak izango lirateke, gurpila helburuen ardatzarekin lotuko luketenak. Gurpilaren eta ardatzaren arteko lotura sendoa den heinean, ez da orekarik galduko eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak hobeto egingo du aurrera.

Bigarren mekanismoarekin eduki sarean ikasitako edukiak jaso eta antolatzen dira (bai kontzeptuzkoak, bai prozedurazkoak eta baita jarrerazkoak ere) (**7. irudia**).

Honen inguruan, ideia hauek azpimarratu nahi ditugu:

- Irakasleak galderak egiten ditu eta ikasleek ozenki erantzun behar dute aurreko ideiekin lotuz. Hitzez adierazi behar horrek bultzatu egiten du **norbera bere buruan ideiak antolatzea.**

- **Ikasle guztiak egindakoaren jakitun bihurtzen dira, eta berdinen arteko ikasketa gertatzen da naturalki.**

- Irakasleok ikasitakoaren jakitun egiten gara.

- **Akatsak**, gaizki ulertuak, erdizka ulertuak eta abar zuzentzeko aukera ere eskaintzen du.

- **Ikasitakoa egunero jasotzen da** eduki sarean eta, horrela, **“egunkari”** baten funtzioa ere betetzen du.

- Bertan **jarrerazko edukiak** ere jaso-

6. irudia



7. irudia



tzen dira. Bukatzeko, saioaren hasieran Gowin-en V-an egindako planifikazioan oinarrituz, ikasleek burututako prozesua ebaluatzen dute irakaslearekin. Zer lortu den, zer ez, zergatik, zer falta izan zaigun, beste baterako utzi behar izan duguna...

3. fasearen funtzioa programatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan egindako aurrerapenak egiaztatzea da: ezaguera berriak nola berenganatu dituzten ikasleek, nola erlaxionatu dituzten lehendik zeuzkatenekin, nola trebatu diren prozedura berrietan, aurrera egin ote duten jarrera hobekuntzan...

Horretarako bi erreminta erabiltzen ditugu: bat oso indartsua, **komunikazioa**, eta bestea sinpleagoa, **galdetegi** bat.

Astearen bukaeran Sukarrietan dauden talde guztiek beste taldekideei komunikatzen diete astean zehar egindako lana, ikasitakoa edo ateratako ondorioak (**8. irudia**). Komunikazio hori prestatzeko gidoi bat egin behar izaten dute eta, horretarako, irakasleak taldeari era honetako galderak zuzentzen dizkio:

“Zer kontatu behar diegu besteei gai honi buruz?”

“Zer jakin beharko genuke gai ho-

netaz? Eta zer da garrantzitsuen?”

“Zer uste duzu galdetuko lizukeela irakasleak hori ikasi duzula ziurtatzeko?”

Eta guztien artean erabakitzen denarekin prestatzen da komunikazioa.

Ohiko azterketa batekin konparatuko bagenu, zera esan genezake: erantzunetan, komunikazioaren gidoiaren ardatza osatzen denean azterketaren galderak definitzen ari direla; eta gero, taldeka, puntuz puntu prestatzen duten komunikazioan azterketa erantzuten dutela.

Horrela, irakasleak, eta neurri batean ikasleek, ikusten dute zer izan den adierazgarriena, zer harrigarriena, zer sentitu izan du-

ten beraiengandik hurbil, zer bizi izan duten oso urrunetik, zein izan den gaiarekiko sortu den lotura afektiboa, zenbateraino bereganatu duten ikasitakoa... Hitz bitan, ikasketa esanguratsuen oinarria osatzen duten elementu nagusiak. **Irakasleak, bere parte-hartzearekin ikasleak elementu horietaz konturatzea lortzen baldin badu, erregulazio eta autorregulazio zikloa biribildu dela esan dezakegu.**

Azken ekintza besteen aurreko komunikazio saioa izaten da. **Guretzat komunikatzea benetako ikaste esanguratsuen azken pausoa da.** Ikasitakoaren

8. irudia



funtzionalitatea giza komunikazioarekin soilik gertatzen dela pentsatzen dugu.

Eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren azken ekintza bezala, galdetegi bat pasatzen zaie ikasleei beraiek eta, bide batez, irakasleok ere, egindako ahaleginaz eta aurrerapenez jabetzeko.

Eta horrela biribiltzen da gure autorregulazioarako eredua.

Ondorio moduan hau esan dezakegu:

Barne prozesu eraikitzaile sendo baten bidetik, ikaslea bera izango da bere ezagueraren eraikitzailea eta, beraz, bere **jarreraren garapenaren autorregulatzaila**. Prozesuaren memento guztietan non dagoen jakingo du, nora jo behar duen, eta nola jokatu ere bai.

Pentsatzen dugu horrela soilik lortuko dela ingurumen hezkuntzaren funtsezko betebeharra: **gaur egun zein etorkizunean suerta daitezkeen ingurumen arazoei aurre egiteko irtenbideak asmatzeko ahalmena duten pertsonen heziketa, eta ez errezetan aplikazio hutsa mugatuko direnena.** •

Bibliografia

- JORBA, J.; SANMARTÍ, N.: “La función pedagógica de la evaluación”, *in* Aula, 20. (1993).
- ALCUDIA, R. et al.: *Atención a la diversidad*, Graó, Barcelona, 2000.
- COLL, C.: *Aprendizaje escolar y construcción del conocimiento*, Paidós, Barcelona, 1997.
- COLL, C. eta beste: *El constructivismo en el aula*, Graó, Barcelona, 1993.
- CASTELLÓ, T.: “Procesos de cooperación en el aula”, *in* Cooperar en la escuela, Graó, Barcelona, 1998.
- CEEP: *Ideas previas y Educación Ambiental*, Fundación BBK-Eusko Jaurlaritza, Bilbo, 1998.
- CEEP: “La evaluación como autorregulación” *in* Aula, 116. (2002).
- NOVO, M.: *La educación ambiental. Bases éticas, conceptuales y metodológicas*, Universitat, Madrid, 1998.

Kontu kontari Pirinioetan egitasmoaren berri Josemari Carrereren eskutik

Nafarroako Pirinioetako herrixketako haurrak ipuin kontalari berezi batzuen bisita jaso dute aurten eta *Bavar eta Kiwi* ipuina kontatu diete. Bi hartz arre dira Bavar eta Kiwi, eta bakoitzak izan duen bizitza azaldu diete ipuinaren bitartez. Modu horretan, Pirinioetan desagertzearen dagoen hartz mota arreen egeraren berri jaso dute. Izan ere, egitasmo honen helburua Pirinioetako biztanleen artean hartz arrearekiko sentsibilizazioa garatzea da. Josemari Carrere ipuinkontalaria hara eta hona ibili da Pirinioetako herrixketan eta esperientzia honen bizi-penak kontatu dizkigu.

Kontu kontari Pirineoetan TRENCA (Vallcalenteko fauna zentroaren lagunenelkartea) eta WWF/Adena elkarrekin artean burututako natur heziketa egitasmoa da. TRENCAK hartu zuen aurrera eramateko ardura eta arrakastaz ekin diote pasa den udazken eta neguan lanari Kataluniako, Aragoiko eta Nafarroako ikastetxe eta herrixketan.

Nahiz eta 2003ko martxoan amaitu duten, egitasmoa 1988. urtean hasi zen, pixkanaka garatuz eta landuz joan direlarik, bertsiorik egokiena gauzatzeko asmotan. Azken emaitza ikasle ei zein jendarteari zuzendurikoa izan da eta hiru arlo nagusitan dago banatuta: ahoz-kotasunaren berreskurapena, irakurketaren bultzatzea eta ingurumen heziketa. Helburu nagusia batez ere Pirinioetako biztanleen artean hartz arrearekiko sentsibilizazioa garatzea da.

Ipuin bat argitaratu dute, *Bavar eta Kiwi* izeneko, Vallcalent-eko fauna basatiaren ospitaleko bi hartzen istorioa kontatzen duena. Ospitale honetan animalia basatien zainketa eta sendaketa egiten da. Egitasmoaren finantziarioz Kataluniako Medi Ambient Saila arduratu da eta Conselh Generau D' Aran erakundearen parte-hartzea ere izan dute. Hala nola, kontaketa prestaketan bestelako zenbait taldeen partehartzea ere funtsezkoa izan da. Adibidez, Furalollas eta Augateba Bartzelonako antzerki taldeak eta baita Consello d' a Fabla Aragonesa eta Bartzelonako Unibertsitateko Filologia Fakultateko euskara irakasleena ere.

Josemari Carrere ipuin kontalari euskaldunak parte hartu du inizatiba koloretsu honetan eta oso gustura aritu dela aitortu digu: *“Bi pertsona ibili gara autokarabana batekin hara eta hona kontu kontari, ipuin kontalaria eta teknikaria. Baileraka antolatu da kontaketa eta hauen ezaugarri kultural eta linguistikotara egokitu da. Horregatik, bost hizkuntzatan argitaratu*

da materiala: katalana, aragoniera, araniarra (okzitaniera), gaztelania eta euskara. Ni Nafarroan zehar ibili naiz, euskaraz eta gaztelaniaz kontatuz. Orokorrean ez dugu arazorik izan euskaraz kontatzeko baina izan ditugu zenbait duda-muda herrixka batzuetan ipuin kontaketa hartzuntza aukeratzekoan, hurrek ulertzen baitzuten euskaraz, baina ez inguruko helduek. Hala ere pozgarria izan da gaztetxoaren artean euskara badabilela ikustea”.

Proiektua nola gauzatu duten galdetzean honelaxe erantzun digu: *“Irailan hasita martxo arte luzatu zaizkigu ekintzak, hots, diapositiba emanaldi eta musikarekin lagunduriko ipuin kontaketa, liburuaren banaketa eta gida didaktikoak. Zenbait eskoletan, nahiz eta ipuia ez kontatu, liburu eta gida didaktikoa banatu dira. Azken hauek irakasleei kontalarien bisita baino lehen bidali zaizkie gero gero bakoitzak egokien iruditzen zaion moduan landu dezan ikasgelan. Helburua animalien babesa, kultur ekologia, altxorekologikoa eta, bide batez, altxor linguistikoa banatzea baita”.*

Esperientziaren inguruan oso balorazio positiboa egiten du eta ipuin kontaketa herri txiki eta hirien arteko ezberdintasunen berri ere eman digu. Ipuinen erantzuna ezberdina izaten dela aipatu digu: *“Lehentasuna Pirinio magalean dauden herrixka eta eskolei eman zaie gaiaren gertutasunagatik.*



Izaera hori dela eta, herri txikietan ibiligar batez ere. Hiri handietan kintzeria gehiago somatzen da eta zailagoa izaten da gertutasuna lortzea. Azken esperientzia honetan asko gustatu zaidan zerbait, herri txikietan adin ezberdinetako haurrak zein ondo moldatzen ziren ikustea izan da. Ipuinari emandako erantzunean ere nabaritzen zen elkartasun hori. Hirietan zailagoa izaten da adin ezberdinak nahastea, irakaslearen papera ere aldatu egiten da pixka bat eta hauen inplikazioa orokorrean oso lagungarria izan da”.

Ipuinen ildo honi jarraikiz, jakina da ipui kontaketa ohitura Erdi Arotik datorrigula. Garai hartan juglareek zuten papera oso garrantzitsua zen eta herriz herri saioak eskaintzen joaten ziren. Etxeko sutondoetako istorioak ere gertu somatu ahal izan ditugu Euskal Herrian. Gaur egun, hala ere, nahiz eta sutondoan ez izan, liburutegi eta ekitaldi berezietan ipuinak bizirik dira eta badirudi suspertze baten aurrean gaudela. Dena dela, ipuinez mintzatzen garenean “normalean haur baten irudia etortzen zaigu burura” dio Carrerek, “baina ez dauka zertan horrela izan beharrik”.

Hizkuntza eta lurralde aberastasuna

Denera elkartearen datuen arabera, Pirinioetako mendi magaletan eta aurrepirinioetan 184 ikastetxetatik, 26 Aragoien daude, 55 Nafarroan eta 103 Katalunian, eta hauetan landu dute egitasmoa. Dena dela, ez da horretara mu-

gatu gelditu. Escolles Verdes egitasmoaren barruan dauden ikastetxeetan ere banatu dituzte ipuin aleak eta TRENCA elkarteak aurrera daraman Fauna i habitat egitasmoari harrera berezia egin dioten ikastetxeei ere eman zaie parte hartzeko aukera, besteak beste, Lleidako Unibertsitateko Ciéncies de L' Educació Fakultatean izan da.

Ipuinaren edizio kopurua kontuan hartuta, 13.200 katalanez egin dira, 6.300 gaztelaniaz, 3.700 euskaraz, 3.700 aragoieraz eta 1.100 araniarrez. Horretaz gain, beste 1.200 ale galizieraz ere argitaratu dira, dagoeneko Galizia-ko liburutegietan banatu direlarik.

“Aurrera begira, asmoetako bat proiektua Kantabria aldera eta Galiziara eramatea da, penintsularen iparraldeko aniztasun linguistiko eta kulturalarekin nolabait bat egiteko intentzioarekin. Karabanaren ideiak ere laguntzen du behar ekonomikoa gutxitzen, eta polita izango litzake han ere proiektuari itxura ematea. Ipuinari dagokionez, erantzun oso ona izan du irakurleen aldetik eta haurren sentibilizazioa areagotzeko aukera luztexn du. Izan ere, ipuinak bukaeran Vallcalenteko zentroarekin harremanetan jartzeko luzapena egiten du datu guztiak eskainiz eta harremana erraztuz. Gauza da Kiwi eta Bavarrek hartzkumeak izan dituztela eta haurrei beraiei izena jartzeko proposamena egin diete. Hori dela eta telefono deiak, bisitarako eskaerak eta erantzun ugari jaso dituzte”.

Amaitzeko, abentura honekin bukatu eta gero zein asmo zuen galdetu diogu Carrereri eta honela erantzun digu: “Gure hizkuntza lehengusuak tartean diren asmo honetan lan egitea plazer bat izan da, baina aurrerantzean zer egin pentsatzen jarrita, gustatuko litzaidake hain haurrak ez diren esparruan lan egitea, bertan ikusten dudana hutsunea betetzeko. DBHn adibidez, hutsune handia ikusten dut arlo honetan. Hori bai, ipuinak adineko hizketa, maila eta interesetara egokitu behar du, adibidez istorioa luzeagoa eraikiz. Baina helduek, haurrek beza-

laxe, ipuinen miresmenean sartzeko eskubide berdina ez al dute ba? Gainera pertsonalki haurren mentalitatera gerturatzea baino errazagoa egiten zait 14, 15, 16 urtekoengana hurbiltzea. Horretarako, garrantzitsua da ipuin kontaketa antolatzeke zein kriterio erabiliko diren zehaztea, hori izaten baita askotan arazoa. Aurreiritziak eta estereotipoak alde batera utzi eta entzuleengana ahalik eta gehien gerturatzeke ahalegina egingo dut”.

Bavar eta Kiwi hartzen historiaren inguruan antolatutako dagoen irakas-kuntzak eremu oso zabala (hizkuntza aberastasuna landu, eta hainbat lurralderen arteko lotura bultzatzeaz gain, naturari, eta zehazki, galtzear dagoen espezie bati, bultzada ematea) eta baikorra hartzen du, eta horren antzeko inizatibak lantzeak, nahiz eta lan handia ekarri, merezi duela garbi geratzen da. •

Bavar eta Kiwi ipuina Vallcalenteko fauna basatiaren ospitaleko bi hartzen benetako historian dago oinarritua. Bata Bavar, mendian jaiotakoa, eta bestea Kiwi, zoologikoan hezitakoa, hartzak dira. Zentrorra heldu bitartean makina bat bizipen bizi izan zituzten eta horien berri ematen du liburuak modu koloretsu eta ulergarrian. Basoan jaiotako hartzaren ama ehiztari batek hil zuela kontatzen larru salmenta ilegala egiteko, eta hortik aurrera hamaika bizipen egokitu zaizkio. Kiwi, berriz, andre dirudun batek erosi zuen zortzi aste besterik ez zituelarik eta hirian bizitu zen haren esanetara hamar hilabetez. Txakurtegi batean sartu zuen nagusiak bihurrikerietan hasi zenean, eta azkenik Adenakoei laguntza eskatu eta Fauna Ospitalera eraman zuten. “1975etik 1997ra 27 hartz hil zituzten Pirinioetan eta gaur egun 12 besterik ez dira geratzen mendi horietan. Eta ikerlatzaileen hitzetan, 200 hartzentzako tokia badago”, argitzen digu Carrerek.



Ugaztun hiztunak gara

San Telmo Etxola

Hezkuntza proiektua

Hedabideetan gero eta gehiago nagusitzen ari da amatasunaren eta eskolatze goiztiarraren inguruko diskurtsoa, eta aurrerazale itxurapean sistematikoki ahanzten ari dira aitatasuna eta haurraren oinarritzko premiak. Zilegi bekit gogeta batzuk plazaratzea, eztabaida aberastuko dutelakoan.

Hazkuntza

Ugaztunak gara. Eta ugaztunok badugu sekretu bat ingurunera egokitzeke: haurrak hazteko eta elkartzeko ahalmena. Bi ahalmen horiek sortu dute kultura, gizakiok harrokeriaz gure asmaziotzat jotzen badugu ere.

Ugaztunen kumeak goiztiarrak dira, gizakiok bezalaxe, eta ezin izango lukete aurrera egin amak eskuzabalatasunez zainduko ez balitu. Ugaztun guztiok berdin-berdinak ditugu burmuinen egituretako batzuk; sistema linbikoa, esate baterako. Sistema horrek, gure portaeran eragin handia izateaz gain, bizitza afektiboa eta emozionala arautzen digu. 40ko hamarkadan egingdako ikerlan batzuek frogatu zuten, kontaktu fisikoa elikadura bezain garrantzitsua da haur jaioberriarentzat. Kontaktuaren inguruan antolatzen da



haren afektibitatea: hil egiten da inork ukitzen ez badu. Titia xurgatzea da haurrak gehien atsegin duen harreman fisikoa, baita bederatzila hilabetean aterpe eman dion gorputzaren erritmoak eta sentsazioak gertu sentitzea ere. (Zergatik zaio hain zaila zenbait emakumeri hori entzutea?) Afekturako premia asetzen denean, haurrak oinarritzko segurtasuna lortzen du, eta horixe da bermerik sendoena aurrerantzean bizitzan zehar arazo psikologikorik ez izateko.

Ugaztun espezie gehienetan aitak parte hartzen du kumeen hazkuntzan. Gizakion kasuan ere gizonak haurraren zaintzan partaide izateak onura handia dakar berekin: erantzukizun, eginbehar eta sarien banaketa zuzena. Dena dela, psikologiaren esparruan, uste zabalduta da gizonaren parte-hartze horrek ez dituela funtsean aldatzen ez amak ugaztunetan bete ohi duen funtzioa, ez eta zaintzaile nagusiaren eta haurraren arteko harreman desego-

ki batetik sor litezkeen arazo psikologikoak ere.

Ez dezagun ahanztu gizarte gartuen arazo nagusia buru osasuna dela eta buruko gaixotasun gehienak (genetikak berak eragindakoak aparte utzirik, noski) bizitzaren lehen urteetan sortzen direla. Beraz, guztiz funtsezkoa zaigu hazieraren lehen etapa hau bereziki zaintzea, gizakiaren sozializazio egokia eta garapen harmonikoa ziurtatu nahi baditugu.

Sozializazioa

Sozializazioa da hazkuntzaren hurrengo urratsa. Etapa honetan haurrak galdu egiten du zaindari nagusiari zion atxikimendua. Atxikimendu fasean, haurraren barne mundua, hau da, subjektibotasuna, bi alderdi hauek eratzen dute: batetik, lotura estua eskaintzen dion pertsonaren (ama, ahal dela) gerturatze/aldentzeak; eta, bestetik, harrentzat ia eduki afektiborik ez duten

gainerako “objektuak” aldamenean egote/ez egoteak. Haurra hiru urte inguru dituen hasten da bere barnean “beste” kontzientzia hartzen. Adin horretara bitartean, beraz, nekez hitz egin dezakegu sozializazioaz edo “subjektuen” arteko harremanaz.

Eboluzio une horretan behar-beharrezkoa da aitaren parte-hartze aktiboa. Aitaren figura hori ez egoteak edo prozesuan eragin kortasunik ez izateak bi rola bere gain hartzeri kondentzen du emakumea; eta, aldi berean, haren esku uzten du irudizko familiari eusteko erantzukizuna. Bestalde, ama izan bada hazkunde fasean haurarekin harreman estua izan duena, hau da mementoa aitak lekukoa hartu eta konpromiso zehatzak har ditzan familiaren nukleoa bizirik mantentzeko. Hori gerta dadin, aitaren inplikazioa bezain garrantzitsua da amaren eskuzabaltasuna; izan ere, hazkuntzan gorputz eta arima lan egin ondoren, emakumea abandonaturik senti daiteke, eta horrek eraman dezake haurra bere kontrolpean eduki nahi izatera.

Aurreko puntuetan aztertu dugu zein den egoerarik egokiena haurrak bere premiak ase ditzan bizitzaren lehen bi urrats horietan. Dena dela, kontuan izan behar da amatasunaz eta aitatasunaz hitz egiten dugunean, gizon eta emakumeok egoeraren arabera joko ditzakegun rolez ari garela. Orobat, ez dugu epaitu nahi zer familia mota den hobe edo txarragoa. Izan ere, gaur egungo errealitateari erreparatzen badiogu, begien bistakoa da bai gizonek bai emakumeek eragozpenak dituztela haurren heziketan rol aktibo eta arduratsua jokatzeko. Kasu askotan, amak ez dauka jaio ondorengo lehen urtee-



tan haurra bere ardurapean hartzerik, eta sozializazioa aitaren presentziarik gabe gauzatzen da maiz.

Eskolatze prozesua

Hazkuntzaren (0-3) betekizuna da haurrari lehen harremana garatzeko aukera ematea, baita ahalmen zintestisikoa, entzumena, ikusmena eta mintzamena estimulatzea ere. Familia giroa da, ez bairik gabe, haurrak behar dituen babesa eta segurtasuna eskain ditzakeen ingurunerik egokiena. Eta gizarteak prozesu hori errazteko erantzukizuna dauka.

Gizarteak egitura egokiak sortu eta familiaren nukleoa prestatu, ikuskatu eta diruz lagundu beharko luke, familia bakoitzak ahalik eta librean eta arduratsuen hauta ditzan bere seme-alabentzat nahi dituen hazkuntza eta sozializazio moduak.

Eskolatze goiztiarra (0-3) onuragarria gerta daiteke, arrazoi ugari direla medio, bai hazkuntza bere gain hartzerik ez daukan familiarentzat, bai egituratu gabe dagoenarentzat, bai eta ziurtasun falta, ezjakintasuna edo erosotasuna dela eta haurrak gainetik kendu nahi dituen bikotearentzat. Baina kontuan hartu behar dugu fenomeno berri horren eragilea ez dela haurren beraren ongizatea, baizik eta gizartearen premia soziologikoak. Horregatik, ez dauka zentzu handirik gizartearen baliabideak inbertitzeak haurra ordu batzuetan familiaren gunetik bereizteko, arazo berezirik ez duten familien kasuan behintzat.

Haurra 3 eta 6 urte bitartean eskolatzearen helburua, batik bat, sozializazioa da, eta ez hainbeste alde aurretik finkatutako eduki kognitiboak bereganatzea. Alegia, joko sinbolikoaren bitartez, haurrak rol sozialak ezagutzen ditu, eta horrek bultzatzen du bere nortasuna garatzen hastera, ondorengo etapetan indartzen jarraitzeko. Hala ere, eskolaren inguruneak behartu egiten du haurra hainbat praktika berdintzaile eta portaera kode bere egitera, nahiz eta garatzen hasi berria duen nortasunak horretarako ahalmenik ez duen.

Ildo horretatik, garrantzitsuagoa da



haurra bere kabuz nola hasten den ikasten gertutik eta arretaz jarraitzea, eduki jakin batzuk inposatzea baino. Izan ere, sormenaren iturburua haur bakoitzaren bat-bateko ezaugarrietan dago, eta ez beregana ezin dezakeen informazio egituratuaren kantitatean.

Amatasuna eta aitatasuna

Balioez hitz egiten dugunean, ez gara genero desberdintasun “natural” edo “senezkoez” ari, ezpada irudikapenez, hau da, emakumeok eta gizonok ditugun elementu psikologiko komunak. Sozializazioa buru sinbolikoaren agerpenarekin lotzen da, baita hazkuntzaren eta kontzeptuen agerpenarekin ere. Balioak ere barne mundu horretan kokatu behar ditugu: ez dute sexurik, eta bere gain hartu edo proiektatu nahi dituen edonoren esku daude.

Esan gabe doa kulturak aldatu egiten direla sozializatzeko moduari dagokionez. Halaber, gizon eta emakumeok balio maskulino edo femeninoren aurrean hartzen dugun jarrera asko aldatzen da garaiaren, tokiaren eta egoeraren arabera. Bi generoak izan daitezke maskulinstagoak edo feministagoak. Hori dela eta, ez da harrizkoa bikote batean gizonak balio femeninok bere gain hartzea edo haurrak beraren proiektatzea, eta maskulinoak, berriz, emakumearen.

Sozializazioan, haurrak amarengandik aldentu eta bizitza eta borondate propioak eskuratzen ditu. Mutikoak, baita neskatoak ere, independentzia, autonomia eta autokontrola hautatzen ditu atxikimenduari aurre egiteko; eta albo batera uzten ditu intimitatea, harmena eta bat-batekotasuna. Alegia, tradiziozko balio maskulinoak hartzen

ditu eta amak ordezkatzeko dituen balio femeninoak, berriz, uzten.

Mutikoak balio femeninoak errefusatzeko dituen eta maskulinoekin identifikatzeko da kontraesan askorik gabe. Emakumeak, amaren generoarekin identifikatzeko baita, kontserbatu egiten dituen neurri batean balio femeninoak, nahiz balio maskulinoetatik gertuago bizi. Desberdintasun erlatibo hori dela eta, gizonak muturrera eramandako balio femeninoak ikusten dituen emakumearengan; eta emakumeak, berriz, balio maskulino/femenino polaritatearen kontrako muturrean ikusten du gizona. Desadostasun hori exageratzen dugunean, gure arteko desberdintasuna exageratzen dugu, eta orduan antagonismoa azaltzen da. Emakumeok eta gizonezkoen sexu borroka moduan bizi dugun antagonismo horixe da, hain zuzen, patriarkatuaren garaipenik behinena.

Gaur egun, balio femeninoak gutxietsi egiten dira; izan ere, bertute heroikoaren gabeziatzat hartzen dira. Ideia horren arabera, intimitateak independentzia galtzea dakar, eta, beraz, nia-aren ahultzea; harmena autonomia galtzea da, eta, beraz, pasibotasuna; bat-batekotasuna, berriz, autokontrola galtzarekin lotzen dugu, eta, beraz, senetzko erreakzioa da.

Gizonaren berezko joerak dira asertzioa, arrazionaltasuna eta autokontrola. Balio horiek ertzeramaten badira, gizonak jarrera arazotsu hauek hartzen bat har dezake. Lehena jarrera eskizoida da, eta haren eraginez galdu egingo du harreman emozionalak izateko ahalmena. Bigarrena autoritarismoa da, hau da, gizona sumindu egiten da emozio femeninoak ulertzen ez dituelako; eta, aldi berean, ez dauka ahalmenik familiaren dinamikan modu eraginkor batean jarduteko. Hirugarren

aukera amaren ideologiari men egitea da, eta horrek hutsaren hurrengo bihurtuko du gizona familia sistemari egonkortasuna eta oreka emateko orduan. Hartzen duen jarrera hiru horietako edozein delarik ere, gizonak porrot egingo du familiaren multzoan partaide izan nahi duenean eta arazo ebolutibo edo gatazka emozionalen aurrean erabakiak hartu nahi dituen.

Gizonak arazoak dituen harremanetan konpromisoak hartzeko eta independentea izateko. Haurren hazkuntza eta sozializazioan parte hartzeak aukera paregabea eman diezaiokete balio



femeninoak berreskuratzeko, bere identitateari dagozkion ezaugarri maskulinoak ezertan ere galdu gabe. Gizonak ulertu behar du, behingoz, bikoteak bide bakarra duela aurrera egiteko: bi kideek elkarren bizitza proiektuak errespetatzea eta laguntzea. Bere egoera kultural eta laborala aprobetxatzeak eta familiak eskatzen dizkion zama eta erantzukizuna albo batera uzteak arazo larriak ekarriko dizkio: bikote harremana hoztea, esklerotizatzea edo haustea.

Maiz kontrakoa entzuten badugu ere, hazkuntzari buruz dituen ideiekin (edozein delarik ere ideia hori) koherenteak diren emakumeek ez dute erruduntasunik sentitzen. Erruduntasuna bizipen intrapsikikoa da, eta ohi-

ko sentimendua da gizaki bat mundura ekartzeaz arduratu nahi ez duten emakumeengan, baita seme-alabak izatea auto bat edo bigarren etxebizitza bat erostea balitz bezala hartzen dutenengan ere, edota balio maskulinoen eta femeninoen arteko anibalentzia pairatzen duten emakumeengan.

Emakumea gizartean bere lekua aurkitzen duenean hasten da gizaki gisa errealizatzen, eta hori lorpen sozial agerikoa da. Baina horrek arrisku bat ekar diezaike batez ere gizarteratzea lortu duten emakumeei: balio maskulinoen defendatzaileak sutsuenak bihurtzea, eta hain zuzen ere gizarte tolerantia, afektiboa eta solidarioa berma dezaketen balio femeninoen etsairik handienak bilakatzea.

Balio sozial maskulinoak bere egiten dituzten emakumeek sostengua ematen diote gizarte kapitalistari, nahiago izaten baitute diru gehiago ekarri etxera eta onarpen sozial handiagoa lortu, nahiz horrek familiaren afektuari eta harremanari galera handia dakarkien.

Balio femeninoetatik urrundu diren emakumeek halako paranoia bat nozitzen dute; izan ere, logikoa denez, beren feminitatea zapaltzen duten balioen eraginpean sentitzen dira. Orobat, ezaugarri nartzistikak izaten dituzte, eta horrek ezgaitu egiten dituen beren egoaren aurreiritzi eta asmoetara egokitzen ez den hazkuntzari behar bezala aurre egiteko. Azkenik, obsesibo bihurtu beste biderik ez dute gizarte patriarkalaren eskakizunei erantzun egokia emateko.

Amatasunean politika besterik ez ikustea Mozarten maisulan baten grabaketa entzutean musika ekioparen kalitateari soilik erreparatzea bezalakoxea da. Jarrera kezkarria benetan. Izan ere, horren guztiaren atzean hau ezkutatzen da: Ama Natura Handiaren partaide izateari uko egin nahi izatea. •

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagorekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak maiatza

Ikastolen Elkartearen X. Jardunaldi Pedagogikoak: ahozko ikasgelan

Euskal Herriko Ikastolen Elkartek X. Jardunaldi Pedagogikoak antolatu ditu ikasgelan ahozko ikasgelan duen hutsunea betetzeko asmoz.

Mendebaldeko hezkuntza sistema askori buruzko txostenetan egungo gazteen ahozko hizkuntza gaitasuna eskasa dela agertu da, eta nola ez, eskolari leporatu zaio errua. Hizkuntzak eta komunikatzeko ahalmenak duen garrantzia ikusirik, ikasgelatan lantzeko zenbait proposamen luzatuko dira bi saiotan: batetik euskal lurraldetik kanpoko esperientziak ekarri eta bestetik, Euskal Herrian bertan buruturikoen berri emanez.

Noiz: Maiatzaren 14, 15 eta 16

Non: Europa Jauregian (Gasteiz)

Maiatzak 14, asteazkena

9:00-9:30 Harrera. Dokumentazio banaketa.

9:30-10:00 Harrera ofiziala: Pedro Aranburu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria), J. Iñaki Etxezarreta (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren zuzendaria), Joseba Aginagalde (Arabako Ikastolen Federazioaren zuzendaria) eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko ordezkariak.

10:00-11:15 *"Ahozko hizkuntza eta lanketa Europako zenbait hezkuntza sisteman"*, Manuel Alvarez (Europako hezkuntza administrarien Forum Europarreko lehendakari ohia Espainian eta European).

11:15-12:30 *"Ahozko hizkuntza-ren lanketa, bereziki euskara bigarren hizkuntza dutenentzat"*, Uri Ruiz Bikandi (EHUko Bilboko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saileko irakaslea).

13:00-13:30 Iritzi trukaketa

15:45-18:15 *"Behingoz, Hitzegin"* saio praktikoa, Claude Lafitte eta Peggyu Saudax (irakasleak eta GFENko partaideak) eta Michel Ducom (irakaslea

eta GFENko idazkari nazionala).

Maiatzak 15, osteguna

9:30-10:45 *"Ahozko hizkuntza ikastea eta irakastea hasierakoak ez diren hezkuntza mailetan"* (10-18 urte), Monserrat Vila (Bartzelonako Unibertsitate Autonomako Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea).

10:45-12:00 *"Ikasgelan hitz egin eta ahozko hizkuntza irakatsi"*, Marie-Lle Rispail (NICEko IUFM eta egoera eleanitzetan aditua Grenobleko LIDILEM laborategian).

12:30-13:30 Iritzi trukaketa

15:45-17:00 *"Erreferentzi marko europar bateratua"*, James Francis Heyworth (EAQUALSko idazkari nagusia eta Hizkuntza Modernoen Europar Zentroko aditu eta aholkularia).

17:00-18:15 *"Ahozko hizkuntza ekoizteko hainbat ariketa"*, Erich Huber (EHUko Ingeles eta Alemaniar Filologia Saileko irakaslea).

Maiatzak 16, ostirala

9:30-10:45 *"Ahozkoa ebaluatu testu ikuspegiaren oinarrituta: eredu praktikoa NICEko hainbat irakaslerekin"*, Marrielle Rispail (NICEko IUFM eta egoera eleanitzetan aditua Grenobleko LIDILEM laborategian).

11:15-13:15 *"Ahozko ikasgelan baina nolako eta nola"* mahai ingurua, Marielle Rispail, Itziar ELortza (Ikastolen Elkarteko hizkuntz aditua eta ikas-materialgintzaren hizkuntza arduraduna), Itziar Idiazabal (EHUko Euskal Filogogian katedraduna) eta Arantza Ozaeta (HUHEZI Mondragon Unibertsitatea).

13:15-13:30 Ondorioak eta bukera ekitaldia. Pedro Aranburu (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioaren lehendakaria), Erramun Osa (EHIKren hizkuntz proiektuko arduraduna) eta Kike Fernandez de Pinedo (X. Jardunaldi Pedagogikoaren koordinatzailea).



Informazio gehiagorako:

Arabako Ikastolen Federakundea

Tel.: 945 233 355

Faxa: 945 135 321

E-posta: aif@ikastola.net

Informazioaren Teknologia Berrien inguruko mintegia ospatuko da Donostian

Datorren maiatzaren 5ean Donostiako Miramongo Parke Teknologikoan **Informazioaren Teknologia Berrien inguruko Nazioarteko Mintegia** iragarri dute IST Information Society Technologies elkarteak (Informazioaren Teknologiarren Elkarte) eta "Artnouveau" izeneko proiektu aurrerakoiko ardura-dunek. Artnouveau Europar Batzordeak sorturiko elkarte bat da, non gaika hainbat lansare antolatzen diren teknologia eta aurrerakuntza berrien inguruan, artearekin eta kulturarekin loturik. Elkarlanean, Bikontec, Deustuko Unibertsitatea eta San Telmo museoak hainbat ekintza eta aukera prestatu dituzte.

Hiru alor nagusitan antolatuta daude ekintza horiek: teknologia, ondarearen zabalkuntza eta praktikotasuna edo aplikazio eremuak (museoak, adibidez). Museoak hizpide, **Gipuzkoako burdinaren historiari buruzko erakusketa bat** dago ikusgai San Telmo museoan. **Martxoaren 14tik eta ekainaren 15era arte** egongo da ikusgai. Besteak beste, hiru dimentsiotan osaturiko burdinolak ikus daitezke betaurreko bereziak jantzita, eta mahai birtual bat ere prestatu dute.

Hala nola, erakunde honen helburu nagusien artean hauek ditugu: 3D formatodun ingurune birtualak sortzea kultura eta tradizioak herritarrengandik gertuago jartzeko; hezkuntza tresna gisa handituriko errealitate irudiak eta tresna birtualak erabiltzea; informazio eta komunikazio teknologien erabilpena sustatzea; eta azkenik, informazioa jasotzeko erraztasunak jartzea interesatua dagoen edonori eta arlo honetan aurrerapenak egitea.

Teknologia Berrien bidez arte eta kultur ondarea zabaltzeko prestatu dute mintegi hau, beraz, eta era berean, Europar Komunitatean informazioaren teknologian garapena eta sustapena bideratzeko helburuarekin. Arte eta

kultura digitalean adituak direnak, araeugileak, ikerkertzaleak, artistak eta ordenagailuetako profesionalak elkartuko dira bertan. Horien artean, Europar Batzordeko ordezkariak, espainiar estatukoak eta bertakoak arituko dira hizlari.

Esperientzia aberasgarriak izango diren ziurtasuna ematen dute, bertan parte hartuko dutenen maila onenetakoa baita. Informazio teknologiko honek guztiak kultur aberastasuna handitu eta, orokorrean, adierazpen artistikoa lantzeko aukera parebagea eskainiko duela pentsatzen da.

Jardunaldietan elkarrizketa eta iritzi trukaketarako aukera izango da, izaera aktibo eta funtzional bat eman nahi izan baitiote. Egia da informazio eta komunikazio teknologien erabilpena, media digitala eta web orrietan oinarritutako teknologia gero eta sofistikatuagoa bihurtzen ari dela arte eta kultur sektoreetan. Horregatik, bai hizlari entzako eta bai beste modu batera parte hartu nahi dutenentzako ere ateak irekita daude.

Hona hemen maiatzaren 5erako proposatu dituzten ikerketa eta hitzaldi eremuak, nahiz eta ez diren hauetara soilik mugatuak geratuko.

Teknologia alorrean

- 3D digitazioa
- Internet eta web orriak
- Errealitate ezberdinak nahasten dituztenak
- Balizko beste teknologia berriak

Ondarearen zabalkuntza

- Deustuko Unibertsitatearen partehartzearekin:
- Kultura bertako eta komunitateetako garapenaren faktore gisa.
 - Berrikuntza kulturala sarean helburu sozio-ekonomikoekin.
 - Bertako garapena informazio eta komunikazio teknologiak erabiliz.



- Teknologian oinarritutako enpresen sorrera: multimedia interaktiboa, filma digitala eta hezkuntzaren produkzioarako telebistaren erabilpena.

Hezkuntza ez formala eta praktikotasuna

- Ingurunearen ezaguera eta adimena.
- Berrikuntzak kultura diseinuan eta pedagogian.
- Mugikortasuna ikaste ez formalaren bultzatzaile bezala.
- Ikaste kontextuala.
- Ikasleari laguntzea eta sisteman sartzea.

Informazio gehiagorako:

www.artnouveau-net.org/first-workshop/ (ingelesez)

Aurkene Aizua-Sorzabal
Tel: 943 32 66 00
Faxa: 943 29 26 35
aurkenea@ud-ss.deusto.es

Maria Teresa Linaza
Tel: 943 30 92 30
Faxa: 943 30 93 93
mtlinaza@vicomtech.es

Miren Akordagoitia Murua
San Telmo Museoa
Tel: 943 48 15 80
Miren_Akordagoitia@donostia.org

Argitalpenak



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ondare arkitektonikoa I.

Ondare erlijiosoa

Ikastolen Elkarte eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

3 CD-ROMez osaturiko bilduman, lehenengoa dugu hauxe. Hiru atalez osaturik dago: datu basea (konsulta iturria), mapa eta abenturajokoa. Irudi koloretsuz eta ludikotasunez, Euskal Autonomia Elkarteke arkitektura erlijiosoa lantzeko aukera paregabea eskaintzen du •



Jentilen kronikak
zazpihertirik itsasgorrietara

Karlos del Olmo
Dakit

Zer gertatuko litzateke egun mitoen bitartez baino ezagutzen ez dugun mundu bat-batean benetako bihurtuko balitz? Gartzot gazteak egoera horri aurre egin beharko dio, maitasuna, heriotza eta jakintza zaharrak uztartuz. Kondairazko unibertsoan murgildu eta gisa guztietako sentipenak bizituko ditu •



Honelakoxea da nire arreba, eta zer?

Pako Sagarzazu eta
Mikel Valverde
Elkarlanean

Mutiko batek Down sindromea duen bere arrebari buruz hitz egiten du liburuxka honetan. *Eta zer?* sailaren barruan, zortzi urtetik aurrerakoentzat zuzenduriko lan interesgarria eta ezberdina da. Gaiaren trataera oso modu landuan, baina era berean, oso ulerterrazean eta atseginean aurkezten da •



Emakumeak. Vidas de mujer
Ortuellako berritzegunea
Eusko Jaurlaritza

Meatzaldeko eta Enkarterriko ikasketxei eskainitako "Emakumeak eta baloreak" izeneko mintegiaren baitan sortu den liburua duzue. Irakasle eta ikasleek eginikoa da eta prozesu sakon baten ondoren, bizitzako hainbat eremutan emakumearen protagonismoa ikertu dute eta biografia gisan eskaini •



Euskal herriko pertsonaiak
Erlantz Urtasun Antzano
Gaiak

Oinarrizko liburutegia liburu bildumaren barruan koka dezakegu liburu hau. Gure herriko pertsonaia historiko eta esanguratsuenen biografiak jasotzen ditu aurkibide erraz batekin: Luis Arana Goiri, Azkue, Argala, Elhuyar, Urretxindorra, Matalas, Guridi, Irujo, Lazkao Txiki, Kanpion, Krutwig, Lartzabal, Likiniano, Meabe, Mirande... •



Ilargia.com
Care Santos
Giltza

Edebé sariko nobela irabazlea dugu honako hau. *Periskopia*a bilduma ko ale honetako protagonista misterio bat da: ez da efektu optikoa, ez da protesia, ez da muturreko baten ondoriozko hanpadura. Inoiz ikusi duzuen sudurrik handienak baino hiru zentimetro gehiago ditu. Ez da zapala, ezta zuta ere. Bere nortasunaren bereizgarri behinena nortasunik ez izatea da •

Luberri, Euskal Herriko lehen geologiako interpretazio zentroa

Luberri Euskal Herriko lehen geologiako interpretazio zentroa inauguratu zen Oiartzunen apirilaren 4an. Ikasgune geologiko landua eta aberatsa dugu hauxe eta ikerketaz gain, helburu didaktikoa du, batez ere.

Aiako harrien magalean kokaturiko zentro honen sortzaileak Aranzadiko kide Klara Gutierrez eta Jose Angel Torres izan dira, eta urteetan jasotako bilduma geologikoa publikoari eskaintzeko modua moldatu dute.

Oiartzungo Ergoien auzoko Pagoaldea industrialdean dago kokatua, 200m² dituen eraikinean, eta hainbat aretotan banaturik dago. Kokalekuari dagokionez, Klarak dio, *“ez da kasualitatea zentroa Oiartzunen kokatuta egotea, oso leku egokia baita. Geologiaren ikuspegitik Oiartzungo haranak berebiziko garrantzia du, lau garai geologikoak azaltzen baitira, eta hori ez da oso ohikoa”*.

Gerora ekimen gehiago sartu eta moldatzeko asmoa dutela adierazi badute ere, aretoak ekimen mota eta gai ezberdinen arabera antolatuak daude, ibilbide jakin baten barruan.

Sarreran, ibilbidean sartu aurretik, geologiari eta paleontologiari buruzko

argibide batzuk ematen dituzte. Mapa geologikoak interpretatzen eta harrokkak bereizten irakasten dute giroan sartzen joateko.

Hurrengo aretoan Euskal Herriko geologiaren historia agertzen da paleozoikotik kuarternariora arte. Ondoren, Oiartzungo geologiari buruzko xehetasunak ezagut daitezke, Aiako Harrietatik Oiartzun ibaiia itsasoratu arte, lurralde honek bizitutako etapa geologiko guztiak adieraziz.

Aurrera jarraituta, laborategia eta tailer gunera iritsiko gara, eta urruti gabe, ordenagailu gela eta bideo proiektzio gela aurkitu daitezke. Ikerketarako lekua, liburutegia eta material geologikoa jasotzeko biltegia ere atondu dituzte.

Biltegiko materialarekin lana egiteko eta datu-base bat osatzeko asmoa dute, baina helburu nagusia didaktikoa da, eta neurri handi batean, ikastetxei zuzendua. Asteazken zehar ikastetxetako bisitei irekia dago eta asteburuetan, berriz, interesa duen guztiarentzat ikusgai egongo da. Bisitariarentzat azalpenak hiru hizkuntzatan emango dira: gehienbat euskaraz, baina gaztelaniaz eta frantsesez ere bai, hala eskatzen dutenentzat.

Luberri Euskal Herriko lehen geologiako interpretazio zentroak aukera ugari eskaintzen ditu: erakusketa, laborategia, bisita gidatuak, irteerak, ikerketarako aukera... Arduradunek jendearen eta ikastetxeen parte-hartzearekin aberastu nahi dute ikasgunea.

Zentroa apirilaren 4an ireki zuten eta garbi utzi dute hemendik aurrera izaera dinamiko eta aberasgarria eman nahi diotela, jendearen parte-hartzeari garrantzi handia emanez. Ikasteko modurik onena esperientzia denez, ekarpenetarako eta proposamenetarako ere ateak irekiak dituzte.

Aurrera begira, eta malgutasun ildo horri jarraituz, bestelako ekintzak aurrera emateko asmoa agertu dute: zentroko bertako zerbitzuez gain, irteera didaktikoak, erakusketa osagarriak, aldizkako ikastaroak eta zikloko mintegiak egingo dituzte, besteak beste.

Hori bai, bisitan ikastetxetik joan nahi izanez gero, aldeaz aurretik deitzea garrantzitsua litzake, erreserba egin ahal izateko. Telefonoa honakoa duzue: 943260593

Klara Gutierrezek dioen bezala, *“proiektuan parte har daiteke zer edo zer aurkituz gero zentrorra ekarriz. A-gian norbaitek garrantzi handirik ematen ez dion zerbait edukiko du, eta guretzat baliagarria izan liteke zerbait azaltzeko. Nik, hemendik, jendea horretara animatu nahi nuke”*.



“Munduaren ahotsak Eusko Legebiltzarrean” bilkura berezia egin dute EAEko ikasleek

“Munduaren ahotsen osoko bilkura” izeneko aldarrikapena aurrera eramazuten Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko 15 ikastetxetako 75 ikasleek Eusko Legebiltzarrean. Aniztasuna eta dibertsitatearen aldeko manifestu bat irakurri zuten zazpi hizkuntzetan apirilaren 7an ospatu zen Osoko Bilkura Berezia. Parte hartu zuten ikasle haietatik 37 Euskal Herrian jaioak dira eta beste 38ak munduko 15 herrialde ezberdinetatik etorritakoak.

Euskal hezkuntza sisteman bizi izan duten hausnarketa prozesuaren ondorioak agerian jarri zituzten, eta ahoz batez, etorkinen aurrean eta eskubideak defendatuz, berdintasuna aldarrikatu zuten. Pertsona ezberdinen arteko bizi-kidetzeta eta bakearen aldeko apustua

luzatu zuten.

Bilkura berezi honetako 15 bozemaileek zazpi hizkuntzetan irakurri zituzten errespetuari eta aniztasunari buruz bilduriko puntu nagusiak: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez, polonieraz, arabieraz, txinatarrez eta portugesez, hain zuzen ere.

Ondoren, manifestu bat irakurri zuten eta baita berau bozkatu ere. Aho batez onartu zen eta ondorengo tokietara bidali dituzte: Euskal Herriko ikastetxe guztietara, estatuko zein nazioarteko zenbait erakundetara, ikasleen jatorrizko herrialdeen ordezkari diplomatikoengana eta giza eskubideen alde lan egiten duten elkarteetara. Hona hemen aipatu manifestua.

“Mundua gure herria da, Euskadi gure etxea da”

Eusko Legebiltzarrean Lehen Hezkuntzako ikasleak bildu gara. Batzuk hemen jaio gara eta beste batzuk, berriz, planetako beste herrie batean edo bestean. Manifestu hau onetsi dugu munduko edozein tokitako haurrek ezagut dezaten. Gizakiak hobeak eta pertsonak zoriontsuagoak izan gitezkeen Lurak ematen digun aberastasuna denon artean banatuko bagenu, anaia-arrebak bagina. Denok izan behar ditugu janaria, sendatzeko botikak, maite gaituen familia, izarren azpian amets egiteko etxea eta eskola, bertan irakasleekin ikasi ahal izateko eta bizitzeko eta jolasteko lagun onak egiteko.

Euskadiko eskoletan hainbat herrialdetako ikasleak biltzen gara egunero. Elkarrekin ikasi dugu garrantzitsuena ez dela non jaio garen –gure edo gure gurasoak– ezta nola hitz egiten dugun, ezta gure azalaren kolorea edo bizitza ikusteko modua ere. Elkarrekin ikasi dugu adiskidetasuna gure artean egon daitezkeen ezberdintasunak baino garrantzitsuagoa dela.

Eskolei eskerrak ematen dizkiegu kultura aniztasuneko mundu baterako prestatzen gaituztelako, elkarriketan eta elkarrekiko errespetuan oinarritutakoa, alegia. Elkarrekin bizitzea aukera ezin hobea da, geletan egin dugun hausnarketa honek adierazten duenez. Euskal hezkuntza sistemak –munduari eta bertako kulturei irekia– erakutsi digu besteak ezagutu behar ditugula benetan nolakoak diren jakin ahal izateko. Inor ezin dugu epaitu bere itxuragatik. Euskadiko haurrok ikasi dugu besteen barruan begiratzen. Paisaia aberatsa eta itxaropen handikoa da.

Kultura guztiak garrantzitsuak dira. Ideia ona da elkarrekin kulturak trukatzeta. Gure artean honako ezberdintasun hauek egon daitezke: etnia, azentua, gauzak ikusteko modua, sinesmenak edo hizkuntza. Baina horiek guztiak aberasgarriak dira. Beste herrietatik datozenei esan diezaiekegu “hartzen zaituzten kulturarekin gehiago blaituz gero, hobetu margotu ahal izango duzue kultura hori zuen kulturarekin”. Eta Euskadin denbora luzean egon direnei: “etorri berriak ikusten badu bere jatorrizko kultura errespetatzen dela, hobeto egokituko da hemengo kulturara”.

Zorte handia dute bere herrian pozik bizi direnek eta munduko beste herrietara joan beharrik ez dutenek lanaren, janariaren edo haien gurasoen edo familiakoen bila. Haurrei honakoa imajinatzerako gonbidatzen diegu: nola izango litzateke beraien egoera beste herri batera joan izan beharko balute? Kasu horretan, nola gustatuko litzaieke beste herri horretan hartuak izatea? Seguraski irribarre gozo bat aurkitu nahiko lukete, hizkuntza berriak ikasi, urtebetzetan etxera gonbidatzen duten lagun minak aurkitzea nahiko lukete, haien herriaz eta ohiturez interesatzen direnak eta bizitza ahalik eta atseginagoa egiten saiatuko direnak, alegia.

Hemen bizi garen guztiok Euskadiren parte gara. Egun badakigu posible dela atzean uztea jaiotzen ikusi gaituen paisaia hori, eta batzuetan familiako batzuk eta lagun minak ere bertan utzi behar ditugula. Gure gurasoek askotan kontatu digute gure arbasoek urrun joan behar izan zutela, Europako beste herri batzuetara, Ameriketara eta Ozeaniara. Nor daki zer gertatuko den bihar? Dena dela, badakigu ez dagoela inolako etorkizunik elkartzunik, onespentik eta adiskidetasunik ez badago.

Euskadi gure etxea da eta Mundua gure herria da. Gure Legebiltzarretik munduko haurrok planetako legebiltzar guztiei eskatu nahi diegu –Europako Parlamentutik hasita– haien ordezkariak lortu ditzatela guztientzat lege berak, guztiok eskubide berak izan ditzagun. Aniztasun aberasgarriko eskubidea, errespeturako eta benetako adiskidetasunerako eskubidea, etorkizun hobea, eta emigratzeko eskubidea. Bakean bizitzeko eskubidea. Modu horretan baino ez dugu lortuko Euskadi aberatsago bat, mundu hobea, kultura anitzekin eta onberatasun handikoa.

Gasteiz, 2003ko apirilaren 7an

kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

Gaitasun diskurtsiboa: hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan giltzarri¹



Itziar IDIAZABAL Luis Mari LARRINGAN

EHko Filologia, Geografia eta Historia Fakultateko irakasleak

Haur etorkinak gure eskoletara heltzen direnean, kezka nagusia hizkuntza izaten da; hau da, haur horiei nola irakatsi ahalik eta lasterren euskara/gaztelania, guk ez baldin badaki (z)ki)gu beraien hizkuntza(k), ez eta beraiek geureak. Kezka honi aurre egin nahirik, azken urteotan Euskal Herriko talde bat edo beste material didaktikoak sortu gogoz lanean ari dira. Testuinguru honetan kokatu behar dugu *gaitasun diskur-*

tsiborearen garrantzia. Izan ere, orain arte Euskal Herrian lehen hizkuntza-
ren (H1) eta bigarren hizkuntza-
ren (H2) irakaskuntza, ez du leku handiegirik (edo lekurik) izan ikuspegi diskurtsiboak, eta gure ustez, hizkuntzen eta hizkuntza aniztasunaren didaktikan, nozio klabeetako bat da. Artikulu honetan, laburkiro bada ere, honen garrantziaz chartarazten saiatuko gara.

Hasteko, hizkuntzen ikas/irakaskuntza egun eragin ohi duten hiru faktore multzo aipatzen dira:

1) Hasteko, gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio hizkuntzaren **di-mentsio diskurtsiboi**, eta horrek ondorio teorikoak, didaktikoak eta metodologiazkoak izanen ditu hizkuntzen irakaskuntza. Honelatsu, hain zuzen: a) testu eta diskurso hizkuntzalaritzak mintzairaren funtzionamenduaz deskribapen berriak eskaintzen ditu, askotan kontuan hartu ez direnak, baina hor, beti hor daudenak; b) nola baliatu deskripzio eta ekarpen teoriko horiek? Nola ekin ibilbide koherente bati? Zein progresio proposatu?; c) metodologia mailari dagokionean, erronka berri baten aurrean jartzen du irakaslea, proposamen eta ariketa berriak egin beharrean aurkitzen baita.

2) Gauden egoeran gaudelarik, testuinguru berri bat egokitzen zaio hizkuntzen irakaskuntzari. Batetik, dibertsifikatu egin da hizkuntzak "ikasteko" eskaera soziala, hizkuntzak komunikazio tresna ez ezik, elkarreraginerako tresna ere bihurtu baitira. Nork bere as-

³ Artikulu hau Itziar Idiazabalen eta Luis Mari Larringanen (EHU) *La competencia discursiva: una noción clave para la didáctica de las lenguas y la didáctica del plurilingüismo* (2003) artikulua izulpena eta laburpena da. Artikulua oraindik argitaratzeke dago. Beraz, norbait interesatuta balego jatorrizko artikuluan edo gai honen inguruan, beraiekin zuzenean harremanetan jar liteke. Itziar Idiazabaleen e-posta: fvpdgoi@vc.ehu.es eta Luis Mari Larringanena: fvplaarl@vc.ehu.es



mo, premia eta beharizan propioak izan ohi ditu. Bestalde, ikaste eta baliatze horiek eleaniztasun egoera batean burutzen dira, eta horrek ere badu berea.

3) Hirugarren faktore multzoak hizkuntzak eskuratzeko moduari oratzen dio. Izan ere, aurrerantzean, hizkuntzaren eskuratzea ez da soilik erakunde barruan gertatuko den zerbait izango, eskuratzeko hori ez da egongo erakunde bati mugatua, testuinguru zabalago baten baitako kontua ere izango baita. Zentzu honetan, hizkuntzaren irakaskuntza sozializazio kontua ere badela aitortu beharra dago. Litekeena da, esaterako, eraginkortasunak gramatikaltasunari aurrea hartzea.

Honek guztiak aldatu egiten du hizkuntzaren eskuratzeko moduaren perspektiba. Testuinguru honetan, gaitasun diskurtsibo funtsezko nozioa da eta errentagarria izan daitekeela uste dute artikulugileek

Baina, zer da zehazki gaitasun diskurtsiboa? Chomskyk (Chomsky, 1965) "gaitasuna" eta "ariketa" kontzeptuak bereiztu ostean, D. H. Hymesen (Hymes, 1971) autoreak, Chomskyren "gaitasuna"/"ariketa" kontzeptu bikotearen analogiaz, eta hura gainditzeko, "gaitasun komunikatiboa" kontzeptua sortu zuen; eta bertan Chomskyk ariketa barnean sartutako alderdi-zenbait trebetasun, besteak beste- bildu zituen. Hemen kokatzen da «gaitasun diskurtsiboaren nozioa, gaitasun komunikatiboaren azpi osagai edo elementu lez eta, honen zehaz-

tapen handiagoa bilatu gogoz. Egileen ustez, hizkuntzaren eskuratzeko gaitasun diskurtsiboari lotuta dago, hots, diskurtso mailako trebetasun batzuei.

Ahozko egite guztiak gizarte harremanetan burutzen dira (Bronckart eta beste, 1985). Burutzen duten gizarteko ekintzaren arabera, ezaugarri ezberdinak izango dituzte, eta ulertu ere, era ezberdinean ulertuko ditugu gizarteko egoera batean edo bestean erabili. Gehiago oraindik, ikertzaile batzuen ustez, hizkuntzaren funtzionamendua diskurtsoetan baino ezin daiteke antzeman. Hala bada, esan genezake "gaitasun diskurtsiboa" hitzaldiak sortzeko gaitasuna dela, eskakizun sozialak eta egoera komunikatiboa kontuan izanda. Rouletek (2000:7) honela definitzen du: *"la competence de produire et d'interpréter des discours variés"*. Baina diskurtso ezberdinen ulermenerako eta sorkuntzarako, jakintza eta gaitasun ezberdinak behar dira, ondorengo hauek bereziki: a) Ekoizpen batean eragin dezaketen faktoreen ezagutza.

Hizkuntzaren eskuratzeko gaitasun diskurtsiboari lotuta dago, eta gaitasun diskurtsiboa hitzaldiak sortzeko gaitasuna da, eskakizun sozialak eta egoera komunikatiboa kontuan izanda

b) Hainbat diskurtso (testualak, tematikoak, linguistikoak) sortzeko gaitasuna. d) Estrategia diskurtsiboaren jabe izatea. Diskurtsoak, egoera soziokultural batean kokatzen dira, egoeraren arabera moldatzen direlarik.

Esandakoaren eta proposatutako hipotesiaren bermagarri eta lekuko gisa, hiru adibide edo kasu jartzen dituzte egileek. Horrela, modu konkretuan erakutsi nahi dute gaitasun diskurtsiboa nozioarekin adierazi gura dena.

Lehen adibidearen bitartez erakutsi nahi da gaitasun diskurtsiboa ez dagoela berez hizkuntza konkretu bati mugatua. Izan ere, hiztun elebidunek, euskaraz jasotako eta egindako irakaskuntza diskurtsiboak, gaztelaniaz ere baliatzen dituzte. Arrazoi sinplea da: "diskurtsoa" den hori ez dazerbait linguistiko hutsa, baizik portaera eta estrategia zabalagoz osatua dago. Era berean, gaitasun diskurtsiboak hizkuntza burutzeko eta praktikatzeko modu sozialei, hots, mintzamolde sozialei egiten die erreferentzia. Hiztun elebidun horrek badaki, esaterako, iritzi emate oso bestelakoak direla inkesta eta eztabaida, eta abar.

Gaitasun diskurtsiboa deskribatzeko bigarren adibidea, eztabaida bateko gaiaren jorratze moduak eskaintzen digu. Eztabaida hizkuntza praktikatzeko modu jakina da. Horrek, besteak beste, gaiaren jorratze berezia eskatzen die parte-hartzaileei: hura ber-hartzea, mantentzea, jarraitzea, aldatzea. Elkarrikeretako hizketagaia aldeztu aurretik emana egon arren, haren hornitzea ez da berezkoa, mintzagaia elkarreaginean eta norbere interesen arabera hezur-mamitu behar da eta. Horrek zenbait estrategia diskurtsibo baliatu beharra eskatzen du.

Hirugarren adibidean, gaitasun diskurtsiboa eta kortesia lotzen dira. Kortesiaren teoriaren arabera, hiztuna bere hizkuntza ekintzak izan ditzakeen ondorio "txarrak" saihesten ahalegintzen da, eta alderantziz, alderdi onak bultzatzen. Horretarako baina, estrategia egokiak eta propioak landu behar ditu; esaterako, gauzak zeharbidez eman



Bibliografia:

- AVELINO, C. eta CAPUCHO, M. F.: "Grammaire: la forme? Le sens? Le cas des programmes de français dans l'enseignement au Portugal", in *Études de Linguistique Appliquée*, 122 (2001), 241-256.

- BRONCKART, J.P. eta beste: *Le fonctionnement des discours*, Delachaux et Niestlé, Paris, 1985.

- CHOMSKY, N.: (1965), *Aspectos de la teoría de la sintaxis*, Aguilar, Madrid, Aguilar, 1975.

- HYMES, D.H.: *On Communicative Competence*, University of Pennsylvania Press, Filadelfia, 1971.

- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M.: "Transfert de maîtrises discursives dans un programme d'enseignement bilingüe basque-espagnol", in *AILE* 10 (1997), 107-125.

- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M.: "Berbaldiaren ildotiko euskalduntzea", in *Helduen Euskalduntzearen I. eta II. Jardunaldiak* (2001a), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, HABE, 41-64.

- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M.: "Estructura dialogal y organización temática en el debate de adolescentes", Comunicación presentada en las III Jornadas internacionales sobre la Adquisición de las Lenguas del Estado, Málaga, 2001b.

- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M. (2002a), "Las estrategias de imagen en los adolescentes. Una insuficiencia pragmático-discursiva de adolescentes no entrenados", XX Congreso Anual de AESLA, Jaén, 2002ko apirilak 18-20.

- IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M.: (2002b), "Face-threatening acts in children's debates. Difficulties in being polite", IX IASCL/SRCLD, Madison WI, 16-21 July 2002.

- LARRINGAN, L.M.: "Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea", in *Textos. Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 29 (2002), 21-30.

- ROULET, E.: *La description de l'organisation du discours*, Hatier, Paris, 2000.

beharra, jarduna luzatu beharra, konplimenduak agertu beharra, diskurtso markatzaile jakinak baliatu beharra eta abar. Alderdi hauek ere gaitasun diskurtsiboaren osagaitzat har daitezke.

Ikuspuntu diskurtsiboa eta hizkuntzaren jabetzea eta menderatzearen arteko loturak baieztatu gogoz, *ikerketa bat baino gehiago egin ditugu?*

Ikerketa horietatik, besteak beste, zera **ondorioztatu** dugu:

1. Gaitasun diskurtsiboak *hizkuntzen jabetkuntza eta irakaskuntza lantzen* lagun dezake. Izan ere, hizkuntza bateko hiztunek (bai jatorrizkoek, bai ez-jatorrizkoek), testuinguru jakinetan eta ekintza linguistiko zehatz eta sozialetan hizkuntza nola ulertu eta erabili behar duten azaltzea posible egiten du.

2. *Sekuentzia didaktiko batetik lorturiko ikaskuntza diskurtsiboa*, gerora ere, mantendu egiten da. Beraz, gaitasun diskurtsiboaren osagaitzat jo daiteke.

3. Ikerketetan parte hartu duten partaide gazteen jokabide diskurtsiboei erakutsi dute motibazioa den hori nola ulertu behar den: motibazioa ez datza enuntziatu orijinal edo berriak esatean; baizik eta, bai esatariarentzat, bai hartzailearentzat, esanahi bat -mezu bat- duten diskurtsoak sortzean baizik.

4. Berbaldiaren printzipioak hizkuntzaren erabilerari zentzu gehiago ematen dio. *Forma eta zentzuaren arteko lotura* proposatzen du. Biek beti harremanetan egon behar dute. Garrantzitsuena ez dira ez hitzak, ez erregela morfosintaktikoak bere horretan,

enuntziatu batetik kanpo. Garrantzitsuena, hiztun komunitateek beraietaz egiten duten erabilpena da, zuritzeko, lilurtzeko...

5. Bizitza errealean darabilgun gaitasun diskurtsiboa nahikoa alden du daiteke ikasgelan darabilgunetik. Ikasgelatik kanpo garrantzitsuena mezua da -esaten dugunaren zentzua-. Testuinguru eskolarrean, aldiz, enuntziatuaren zuzentze formal. Gure ikerketetatik ondorioztatutakoaren arabera, *ikaslea gehiago motibatzen da zentzuaren eraketan oinarritzen den metodologia* erabiltzen denean, formaren eraketan oinarritzen denean baino.

6. *Gaitasun diskurtsibo baten garapena*, bai ama hizkuntzan bai bigarren hizkuntzan, *instrumentu heuristikoen jabetza eta aplikazioan oinarritzen* da. Hauek, egitura linguistikoen eta diskurtsiboen hausnarketa (edozein delarik dimentsioa) posible egiten dute, hizkuntza bakoitzaren mugez gandi. Ikasleen gaitasun diskurtsiboaren garapenean, ikasten ari garen hizkuntza guztiak integratzen dituen taldean burututako lan batek soilik lagun dezake era eraginkorrean. (Avelino eta Capucho, 2001: 251-252).

7. Amaitzeko, esan behar da, gaitasun diskurtsiboa nozioaren sartzea ez dela, edozein kasutan, kapritxo hutsa, ezta besterik gabeko kasketaldi hutsa edo moda hutsalak eragindako kontua. Eleaniztasun garaian hizkuntzaren didaktikaren giltzarri izan daitekeela uste da. •

² Adibidez: Idiazabal eta Larringan: 1997, 2001a, 2001b, 2002a, 2002b. Larringan: 2002.

Hitzaldiak

Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen HITZALDIAK

Noiz: 2003ko ekainetik irailera
Informazioa:
www.sc.ehu.es/cursosverano
cursosverano@sc.ehu.es
Tel.: 943 21 95 11

<http://dev.eurac.edu:8080/taln/workshop.minorities.txt>

↘ **Berriztatze jardunaldiak**
Non: BILBO, DONOSTIA eta GASTEIZ
Noiz: 2003ko maiatzaren 24tik 28ra
Informazioa:
gipaniztasuna@donosgune.net
Tel.: 943 32 00 87

↘ **9th international conference on minority languages**
Non: KIRUNA (Suedia)
Noiz: 2003ko ekainaren 6tik 7ra
Informazioa:
www.finska.su.se/konf03.html
fquest@finska.su.se

↘ **IX. Congr s international de l'association pour la recherche interculturelle**
Non: AMIENS (Frantzia)
Noiz: 2003ko ekainaren 30etik uztailaren 4ra
Informazioa:
www.u-picardie.fr/ARIC/
congres.aric@u-picardie.fr

↘ **XXII. Uda ikastaroak**
Aurten hainbat ikastaro, mintegi... interesgarri daude gai honen inguruan: **Aniztasunaren tratamendua: etorkinak hezkuntza sisteman** (uztailak 3 eta 4); **La convivencia ling stica en la diversidad** (uztailaren 9tik 11ra);...
Non: DONOSTIA

↘ **Whorkshop NLP for minority languages with few computational linguistic resources**
Non: BATZ-sur-MER (Frantzia)
Noiz: 2003ko ekainaren 14an
Informazioa:
Oliver Streiter
ostreiter@eurac.edu
Tel.: 39 04 71055115

↘ **Conference on identity and diversity**
Non: ZARAGOZA
Noiz: 2003ko urriaren 9tik 10era
Informazioa:
Beatriz Penas:
bpenas@posta.unizar.es
Tel.: 976 76 15 28/976 21 84 55
Carmen L pez:
clopez@fsf.uned.es
Tel.: 91 398 69 47

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

Lehenengoak kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak bideratzeko aukera ematen dizu. Horretarako, bi helbide hauetakoren batera idatzi besterik ez duzu egin behar:

itziaramayo@msn.com edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Bigarren aukera erantzuna ematearena da. Hemen agertzen diren galderei edonork eman diezaieke erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... bi modutara: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarritz edo aldizkari-
ra idatziz (**aldizkaria@hikhasi.com**).

Hartu-emanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaitetz!

“Duela hiru aste 3 eta 11 urteko Ekuadorreko haur etorkin bi etorri zitzaizkigun. Nola irakatsi euskara ahalik eta azkarren? Arabieratik euskararako ezberdintasun fonetikoak nola irakatsi? Hau da, euskarak beraiek ez dituzten hainbat fonema ditu eta nola irakatsi horiek? Orientazio eta material didaktikoa non bila genezake? Material praktikoa trukatzeko prest gaude.

Ondarroako Txomin Agirre ikastola
idazkaritza@txominagirre.org

Antzeko esperientziarik izan baduzu eta proposamenik, aholkurik edo iradokizunik baldin baduzu, erantzun iezaiezu, eskertuko dizute eta!

IV. Baliabide Pedagogikoen gida

prestatzen ari gara

Interesatuok jar zaitetze gurekin harremanetan



Tel: 943 371 408

E-posta: gida@hikhasi.com

hh

hik hasi

udako topaketak



36 ikastaro goizez. Saio libreak arratsaldez

BRUNER, Gutxieneko informatika, KLIK, Web orria, POWER POINT, "SPC" hizkuntza orde-nagailuaren bidez, IPUINAK BIZI-BIZIAN, Alexander teknika, PLASTIKA ADIERAZPENA, Euskal dantzak, ANTZERKI KLOWNa, Antzerkia nerabezaroan, EUSKARAZ ARITZEKO KAN-TAK ETA JOLASAK, Jolas kooperatiboak, EUSKAL SOIN JARDUERAK (ESJ), Psikomotrizitatea, HAURRENTZAKO MASAJEA, Musika hezkuntza hastapenak herri kulture-tan, AHOZKO NARRAZIOTIK ABIATUTA POZIK ETA GUSTURA IRAKUTZERA, Literatur txo-koa, IDAZKERA TXARRA? EZ, ESKERRIK ASKO, Adimena berezko duten haurrak, MATE-MATIKAREN HISTORIA ETA FILOSOFIA, Heriotza heziketan, GOGO ERABILKETA, Ahozko hizkuntzako trebaketa prebentiboa, HISTORIAREN TXOKOA, Jorge Oteiza, ESKOLA BARA-TZA EKOLOGIKOA, Zinema Eskolan, GAUR EGUNGO ESKOLA SISTEMA ETA IRAKASLE-AREN ROL ALDAKETA, Ikaste komunitateak, EUSKAL KULTURA TRADIZIONALA, Hezkuntza aniztasunean, HEZIKETA ESPERIENTZIALA, Hezkuntza ebaluazioa.